BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

3862

ERABAKIA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarena, 2011ko uztailaren 14ko bileran hartutakoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan enplegurako lanbide-heziketari babesa eta laguntza emateko ekintzetarako diru-laguntzen deialdia onartzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartu zituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zuen zuzenbide pribatuko herri-erakunde gisa, bere Bigarren Xedapen Gehigarrian, honako helburu hauekin: enplegu egonkor eta kalitaterako eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta gizarte-eta lurralde-kohesioari lagunduko dion lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen beharrizanak asetzea, bai eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan gomendatzen zaizkion enplegu-politiken kudeaketaren bidez.

Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28ko bileran hartu zuen Erabakiaren bitartez (azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren eta Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuaren bidez onartu zena), lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu ondoren, bere gain hartu zuen Lanbide-Enplegu Zerbitzuak eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuen zein Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta horri atxikitako Egailan SA sozietate publikoak lan-politika aktiboen arloan garatzen zituzten eginkizunen kudeaketa. Horrenbestez, 2011ko urtarrilaren 1ean ekin zion lanari.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ardurapeko enplegu-politika aktiboen artean lanerako prestakuntza dago. Ildo horri jarraituz, azaroaren 30eko 329/2010 Dekretuak onartutako bere Estatutuetako 9.c) artikuluan zera aurreikusten da herri-erakundearen eginkizunen artean: «Enpleguko eta enplegurako prestakuntzako programak kudeatzea, diruz lagundutako deialdien onarpena eta izapidetzea barne». Enplegurako prestakuntzaren barruan, eta lanerako eta etengabeko prestakuntza bereizi ondoren, pertsona landunei zuzendutako prestakuntza dago gaur egun, hala eskatu, enpresen prestakuntza-ekintzak eta banakako prestakuntza-baimenak barne hartzen dituena, nola eskaintzen dena. Azken horrek, lehentasunez langile landunei zuzendutako prestakuntza-planak barne hartzen ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean daude Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa eta ondoren izenpetutako Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzarako Hiruko Akordioa 1995eko irailaren 27an sinatu zirenetik, eta azken horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak gizarte-eragileek erabakitako eredua onartu eta aldeek onetsitako betekizunak banatu ziren.

Hiruko Akordioaren bitartez Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa sortu zen, EAEko langile landunen prestakuntzaren kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak eta enpresen, langileen eta hezkuntza-zentroen artean etengabeko prestakuntzarako interesa pizteko eta jarduera hori ahalik eta gehien zabaltzeko eta ahalik eta eraginkortasun handiena izateko ardura bere gain hartzeko helburuarekin. Ekitaldi bakoitzean etengabeko prestakuntzara (egun, langile landuei zuzendutako lanerako prestakuntzatzat ulertu behar da) zuzenduko zuen finantzazioa Hobetuzi

emateko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta baita esparru horretan aipatu Lanbide arteko Akordioa sinatu zuten erakundeek burutzen dituzten jarduketak ordaintzera zuzendutako baliabide ekonomikoak eta fundazioaren beraren egitura teknikoak funtzionatzeko gastuak zein finantza-gastuak finantzatzeko ere.

Lanbide arteko Akordioak eta EAEko Etengabeko Prestakuntzari buruzko Hiruko Akordioak indarrean jarraitzen dutenez, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde publikoak eta Hobetuz fundazioak langile landunei zuzendutako prestakuntzaren arloan dituzten eginkizunak aintzat hartuta, erakunde biek elkarren arteko harremanak arautu dituzte, eta horrela, Hobetuzek prestakuntza honetara zuzendutako laguntzen deialdiak kudeatzeko beharrezko egitura teknikoa izango du eta eginkizun hori beteko du, baita onuradunei diru-laguntzak ordaindu ere, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, berriz, deialdi horien oinarriak onartu eta horiek ebazteaz arduratu beharko da, eta aldi berean, Hobetuzi bere egitura finantzatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eskualdatzeaz eta deitutako diru-laguntzak ordaintzeaz.

Egungo ekonomia-egoerak enplegurako politika aktiboak koordinatzeko ahaleginak bateratzea eskatzen du, haien eraginkortasuna hobetze aldera. Izan ere, enplegurako lanbide-heziketaren lehentasunezko helburua da, lanean ikaskuntza-prozesu jarraitu eta integratua sustatzea, langileen kualifikazioa hobetuz, mugikortasuna erraztu, enpleguaren kalitatea bermatu eta enpresen lehiakortasuna hobetzearen alde egiteko.

Babesa eta laguntza emateko ekintzen helburua, berriz, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren eraginkortasuna hobetzea da.

Horregatik guztiarengatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2011ko uztailaren 14an egindako bileran, ondorengoa erabaki du bertaratutako guztiak alde zirela.

ERABAKIA:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan enplegurako lanbide-heziketari babesa eta laguntza emateko ekintzetarako diru-laguntzen deialdia garatzeko deialdia onartzea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.– Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren aurrean hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 14a.

Administrazio Kontseiluko idazkaria, titularra ez egoteagatik,
JAVIER RUIZ FERNÁNDEZ.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESPARRUAN ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETARI BABESA ETA LAGUNTZA EMATEKO EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA GARATZEKO DEIALDIA

1. artikulua.– Xedea.

Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak eta informazio- eta orientazio-ekintzak finantzatzeko diru-laguntzak arautzea da deialdi honen helburua.

2. artikulua.– Ekintzen helburua.

1.– Deialdi honen babespean finantzatutako ekintzen helburua da, sektoreko eta sektore anitzeko ikerlanak egitea, produktu eta tresna berritzaileak garatzea eta enpresa eta langileei, lanbide-heziketa eta -mugikortasuneko aukerei buruzko, nahiz lanbide-gaitasunak bideratzen dituzten enplegurako lanbide-heziketako ekintzetarako sarbide ezberdinei buruzko informazioa, laguntza eta orientazioa ematea.

2.– Deialdi honen babespean finantzatutako ekintzak, langileen enplegurako lanbide-heziketaren hobekuntza eta eraginkortasunera zuzendu beharko dira, eta ezin izango dira, bereziki, Herri Administrazioaren arlora bideratu.

3. artikulua.– Diru-laguntzen emakida arautzen duten printzipioak.

Diru-laguntzen emakida norgehiagoka-erregimenean egingo da eta objektibotasun, berdintasun, gardentasun eta publizitatearen printzipioak errespetatuko dira.

4. artikulua.– Ekintzak finantzatzeko aurrekontua.

1.– Deialdi hau garatzeko bideratuko diren baliabide ekonomikoak 1.800.000 euro dira gehienez. Funts horiek Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioari eskualdatuko dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ordainketa bakar bat eginez; eta diru-laguntza horien ordainketa dagokion ebazpena hartu ostean egingo da.

Honela banakatuko dira ekintza-motaren arabera:

a) Enplegurako lanbide-heziketa sustatu eta hedatzea: 576.000 euro.

b) Informazio- eta orientazio-zerbitzu integratuak enplegurako lanbide-heziketan esperimentatzea: 234.000 euro.

c) Berrikuntza-ekintzak prestakuntza-prozesuetan, -produktuetan eta -tresnetan: 702.000 euro.

d) Enplegurako lanbide-heziketaren eredu berriaren esparruan, prestakuntza, kualifikazio eta enpresa-garapeneko proposamenen inguruan hausnartu eta horiek aztertu, esperientziak elkartrukatu eta proposamenak lantzeko foroak sortzea: 54.000 euro.

e) Zeharkako eta sektore anitzeko azterlanak: 234.000 euro.

2.– Aurreko atalean adierazitako ekintza-moten arteko baten bati dagokion finantzazioa erabat aplikatu ezean, aplikatu gabeko zenbatekoa beste ekintza-mota bati dagokionari gehitu ahal izango zaio.

5. artikulua.– Finantza daitezkeen ekintzak.

Deialdi honen babespean ondorengo ekintzak burutzeko diru-laguntzak eman ahal izango dira:

1.– Enplegurako lanbide-heziketa sustatu eta hedatzea.

Azpi-sisteman aurreikusitako enplegurako lanbide-heziketaren inguruko akordioak eta ekimenak sustatu eta hedatzea dute xede, horretan esku hartzen duten enpresen, langileen eta bestelako eragileen artean prestakuntza sustatzeko eta ETEak mekanismo hauei heltzearen alde (taldeka beren kasuan) egitearren.

Aurreko atalean aurreikusitakoaz gain, honako hauei buruzko informazioa eman dezakete ekintzek: Kualifikazioen Sistema Nazionalari, langileentzako prestakuntza-arloko informazio- eta orientazio-zerbitzuei, lan-merkatuak jarduera-sektore ezberdinetan eskatutako prestakuntza-espezialitateei eta lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez bereganatutako lanbide-gaitasunen ziurtapenari eta ebaluazioari buruzkoa.

Ekintza, enplegurako lanbide-heziketaren sustapen eta hedapenaren erabilgarritasuna, irismena eta inpaktua baloratzen hasi eta sustapen- eta hedapen-jarduerak garatuko ditu, besteak beste, doako informazio-zerbitzuak, dokumentu-oinarrietarako sarbideak eta kontsultak, enplegurako lanbide-heziketako ekimen ezberdinei buruzko informazioa bidaltzea (posta arrunt edota elektroniko bidez), jardunaldiak eta mintegiak egitea, hedapeneko materiala prestatu eta banatzea (triptikoak, kartelak, etab.), iragarkiak hainbat hedabidetan eta enplegurako lanbide-heziketa ezagutaraztearen alde egin dezakeen zuzeneko beste edozein sustapen-neurri.

Sustapen- eta hedapen-ekintzak sektore artekoak izango dira, eta hartzaile hauek izango dituzte:

– Prestakuntza-ekintzetan esku hartu ahal duten langileak, bereziki eta besteak beste, aldi baterako langileak.

– Eskaintzako prestakuntza-arloko diru-laguntza publikoen onuradun izan daitezkeen erakundeak.

– Eskaerako prestakuntza-ekintzak finantzatzera zuzendutako gizarte-segurantzaren kotizazioetan hobarien, nahiz ekintza estrategikoen deialdien onuradun izan daitezkeen enpresak, eta bereziki 50 langile baino gutxiago dituzten enpresak.

Kanpoko ebaluazio-prozesua egingo da ekintza horien gauzatzeari buruz, eta horretan, erakunde onuradunak Hobetuzi, edo hark baimendutako erakundeei, ekintzen helburuei, garapenari eta lortutako emaitzei buruz eskatzen dioten informazioa emanez lagundu beharko du.

2.– Informazio- eta orientazio-zerbitzu integratuak enplegurako lanbide-heziketan esperimentatzea:

Ekintza hauen helburua da langileei lanbide-prestakuntza eta -mugikortasunaren aukerei buruzko, nahiz lanbide-gaitasunak bideratzen dituzten enplegurako prestakuntza-ekintzetarako sarbide ezberdinei buruzko informazioa, laguntza eta orientazioa ematea. Era berean, eta Kualifikazioen Sistema Nazionalaren garapenak ahalbidetzen duen neurrian, programa esperimental honen helburua langileei, duten esperientzia aitortzeko aukeren inguruko zein beren kualifikazioaren ziurtapenaren inguruko orientazioa ematera zabaldu ahal izango da.

Ekintza, sektore arteko eta autonomia-mailako langileen informazio- eta orientazio-eskaera aztertzen hasiko da. Lanbide-informazio eta -orientazioko prozesuak orokortu egin beharko dira, zerbitzuaren hartzaile izango diren langile-kopurua beharren, premiaren edo lehentasunaren arabera areagotuz, eta gizarte-sareen eta enplegu-atarien abantailez baliatuz. Orientazio-ekintzek aintzat izan beharko dituzte egon dauden sareak.

Ekintzak sektore anitzekoak izango dira eta arreta berezia une hauetan lanbide-heziketara sarbidea mugatua duten edo lan-egoera prekarioan dauden talde bereziei eskainiko zaie.

Erakunde eskatzaileak langileei enplegurako lanbide-heziketako ekintzetan esku hartzea eskaintzeko ahalmena izango du, orientazio-prozesuen eraginkortasuna bermatzeko eta langileen lanbide-gaitasunaren eta banakako sustapenaren hobekuntza sustatzeko zein garrantzi berezia duten gaiei buruzko prestakuntza sustatzeko helburuarekin. Orientazioak enplegua hobetu nahi duten langileei eragiten dienean, gora egiten ari diren sektoreetan beharrezkoak diren gaitasunak bereganatzera zuzendutako prestakuntza berezia eman ahal izango da, 15 lagun inguruko taldeetan.

Eskabidean proposatzen den lanbide-informazio eta -orientazioko zerbitzu-mota ezberdin bakoitzerako, espero diren emaitzei buruzko informazioa eman beharko da, ekintzak jasoko dituzten langile-kopuruen arabera.

Langileei emandako orientazioak beren lan-egoeran izan dituen eraginak egiaztatzea ahalbidetuko duten jarraipen-jarduerak gehitu beharko dituzte ekintzek.

Kanpoko ebaluazio-prozesua egingo da ekintza horien gauzatzeari buruz, eta horretan, erakunde onuradunak Hobetuzi, edo hark baimendutako erakundeei, ekintzen helburuei, garapenari eta lortutako emaitzei buruz eskatzen dioten informazioa emanez lagundu beharko du.

3.– Berrikuntza-ekintzak prestakuntza-prozesuetan, -produktuetan eta -tresnetan.

Honelako ekintzen helburua da, autonomiaren esparru osoan zehar aplika daitezkeen tresnen garapen berritzailea egitea, tresna horiek irisgarritasuna edo prestakuntza-prozesuen eraginkortasuna hobetu beharko dutelarik. Tresnak eta erremintak sortzeaz gain, egon daudenak egokitzeko aukera ere emango da, horien erabilgarritasuna eta une horretan indarrean daudela bermatzen denean, eta bereziki enplegua sortzeko duten ahalmenagatik lehentasunezkotzat jotzen diren sektoreetan.

Enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sisteman aurrerapena dakarten tresna eta erreminten garapena finantzatu ahal izango da, ondorengo lerroren batean:

a) Lanpostuetan eskatutako gaitasunak identifikatzeko metodologiak eta tresnak, prestakuntza antolatu eta planifikatzea errazteko, langileen prestakuntza- eta ikaskuntza-beharrei buruzko informazio iraunkor eta eguneratua izatea ahalbidetzen badute.

b) Prestakuntza-ekintza ematean baliabide teknikoak erabiltzea, arlo horretan beren erabilera orokortuta ez dagoenean, hala nola: kontsoletara egokitu ahal diren simulagailuak, sakelako telefonia, PDA terminalak, telebista digitala, telematika-sistemak eta gizarte-sareak, besteak beste. Prestakuntza-ekintza bat emateko produktuen diseinua eta garapena barne hartuko ditu ekintzak. Produktuaren originaltasunak eta berritasunak aplikazioarekin bateragarriak izan beharko dute.

c) Bereziki ETEz eratutako sektoreetako langileei (Eraikuntza, Metala, Ostalaritza, Elikadura eta Eraikuntza) beren lanposturako eskatutako gaitasun berriak bereganatzea ahalbidetuko dieten berrikuntza-prozesuen analisien metodologia. Proposatutako ekintza horiek, produktuetan (ondasunak edo zerbitzuak) edo prozesuetan (teknologikoki berriak diren prozesuak edo egon dauden prozesuen hobekuntza teknologikoak) ematen diren berrikuntza teknologikoei, zein berrikuntza ez teknologikoei, erantzun behar diete, metodo berriak sortu edo lana merkaturatu edo antolatzeko dauden metodoak nabarmen hobetzeko.

d) Enplegua sortzeko ahalmenik handiena duten sektoreetako ahalik eta parte-hartzailerik gehienei, epe laburreko banakako prestakuntza emateko produktuak, langileak bere lanposturako behar dituen gaitasunak berehala bereganatzeko prestakuntza berezia eskaintzea ahalbidetuko duten baliabideak esperimentatzeko.

e) Profesionaltasun-ziurtapenak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren babespean argitaratutako Profesionaltasun Ziurtapenetan ezarritako prestakuntza-moduluak emateko produktuak. Produktuak modulu osoaren irakaskuntza barne hartuko du. Moduluak prestakuntza-unitateetan banatuta daudenean, horiek guztiak, elkarrekin edo bereizirik, ematea ahalbidetu beharko du. Halaber, lan-esperientziaren bitartez bereganatutako gaitasunak aitortzeko praktika egokiek egiaztatutako metodologiak eta sistemak barne hartzen dira.

f) Enplegurako lanbide-heziketaren eragina neurtzeko tresnak eta metodoak. Horiek, egindako prestakuntzaren eraginari buruzko informazioa berehala jakitea ahalbidetuko diete interesa duten enpresei, inbertsioa itzuli den jakiteko eta ibilbide profesional sendoa eraikitzeko. Tresna edo metodoaren erabileraren kostuak ez ditu prestakuntza-kostu arruntak nabarmen areagotuko.

b), d) eta e) hizkietan jasotako prestakuntza-ekintzak emateko produktuen garapenerako, beharrezkoa izango da ereduzko esperientzia bat egitea garatutako tresna baliozkotzat jotzeko. Kasu guztietan, garatutako produktuak erabili, hedatu eta ustiatzeko konpromisoa aurkeztu beharko du erakunde eskatzaileak.

4.– Enplegurako lanbide-heziketaren eredu berriaren esparruan, prestakuntza, kualifikazio eta enpresa-garapeneko proposamenen inguruan hausnartu eta horiek aztertu, esperientziak elkartrukatu eta proposamenak lantzeko foroak sortzea.

Ekintza hauen helburua da komunikazioa, topaketa, hausnarketa eta informazio eta esperientzien elkartrukea bideratzea, bere garapenarekin lotutako hainbat alderdiri eta gairi buruzko eztabaidaren bitartez, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren eraginkortasuna areagotzearen alde egin dezaten. Enplegurako lanbide-heziketaren kudeaketaren laguntza eta osagarri izan eta praktika egokiak ezagutu eta orokortzearen alde egin behar du ekintza hauen gauzatzeak.

Foro bakoitzean garatu beharreko jarduerarekin batera lan-programa bat egin beharko da, eta horretan, bete beharreko helburuak eta eginkizunak, topaketa-modalitateak eta baterako lana eta parte hartu eta koordinatzeko sistema zehaztu.

Bertaratze bidezko bilerak egitea erabaki beharko da, zeintzuetara jorratu beharreko gaietako adituak bertaratuko diren, eta eztabaida-gune birtuala abiarazi beharko da. Hobetuzen web orrian horretarako lotura erakutsiko da, interesa duten erakunde eta pertsonei parte hartzea errazteko. Autonomia-mailako eta sektore arteko ikuspegi batetik bideratu behako dira jorratutako gaiak.

Eragile anitzekoa izango da foroa, abian jartze honetan eta enplegurako lanbide-heziketako ekintzen eta planen garapenean esku hartzen duten eragile ezberdinek zein etengabeko prestakuntzarekin eta ikaskuntzarekin erlazionatutako arlo ezberdinetan lan egiten duten erakundeek eta adituek foroaren garapenean esku hartu ahal dezaten.

Aniztasuna bideratzeko eta ikuspegi ezberdinak daudela bermatzeko, gutxienez hamabost eta gehienez hogeita bost parte hartzaile izango dira, eta horiek, gutxienez ere, sei erakunde ezberdinetakoak izango dira, erakunde bakoitzeko bi ordezkari baino gehiago ezingo direla egon. Foroan esku hartu ahal izateko identifikatu egin beharko dira parte-hartzaileak, beren lanbide-profila zehaztuz.

Foro bakoitzerako gehienezko finantzazio-muga 54.000 eurokoa izango da.

Ekintzak ondorengo gairen bat izango du hizpide:

a) Aldaketak ekoizpen-ereduan eta horren eragina langileen trebakuntza-beharretan.

b) Trebakuntza-behar berriak eta ikasteko metodo berriak. 2.0 weba enplegurako lanbide-heziketan aplikatzea.

c) Enpresen gizarte-erantzukizuna eta enplegurako lanbide-heziketa.

d) Enplegurako lanbide-heziketaren estrategiak eta alternatibak eta gazteak lan-munduratzea.

Proiektu horiek jardunaldi tekniko bat barne har dezakete, horren helburua amaierako produktuak hedatzea eta horien emaitzei buruzko proposamenak, alternatibak eta iradokizunak sortzea izanik.

Hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartzen duten proiektuek, horren inguruko konpromisoa jaso beharko dute eskabidean. Exekuzio-aldian horren garapenerako azken baldintzak zehaztuko dituzte, 6. artikuluak aipatzen duen dokumentazioko jarraibide teknikoetan azaltzen den bezala.

Hedapenerako jardunaldietan zehar, proiektua garatzen duten erakundeek metodologia, emaitzak eta azken produktua aurkeztu beharko dizkiete gaiaren inguruko eta ekintzaren esparruko enpresa, erakunde eta teknikariei, aipatu dokumentazioan ezartzen diren jarraibide teknikoak betez.

Hedapenerako jardunaldia barne hartzen duten proiektuetan 18.000 euro areagotu ahal izango da aurrekontua, jardunaldi horiek garatzeko.

5.– Zeharkako eta sektore anitzeko azterlanak.

Ekintza hauen helburua da, autonomia-mailako zeharkako eta sektore anitzeko arlo eta gaiei buruzko ikerketa- eta azterketa-ekintzak garatzea, eta enplegurako lanbide-heziketarako interesagarriak eta garrantzitsuak direnez, horren inguruko ezagutza zehatzagoa eta egun dagoena baino sakonagoa izateko beharra planteatzen dute.

Azterlan horiek jardunaldi tekniko bat barne har dezakete, horren helburua amaierako produktuak hedatzea eta horien emaitzei buruzko proposamenak, alternatibak eta iradokizunak sortzea izanik.

Hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartzen duten proiektuek, horren inguruko konpromisoa jaso beharko dute eskabidean. Exekuzio-aldian horren garapenerako azken baldintzak zehaztuko dituzte, 6. artikuluak aipatzen duen dokumentazioko jarraibide teknikoetan azaltzen den bezala.

Hedapenerako jardunaldietan zehar, proiektua garatzen duten erakundeek metodologia, emaitzak eta azken produktua aurkeztu beharko dizkiete gaiaren inguruko eta ekintzaren esparruko enpresa, erakunde eta teknikariei, aipatu dokumentazioan ezartzen diren jarraibide teknikoak betez.

Hedapenerako jardunaldia barne hartzen duten proiektuetan 18.000 euro areagotu ahal izango da aurrekontua, jardunaldi horiek garatzeko.

6. artikulua.– Dokumentazio teknikoa.

Ekintzak egiteko, 5. artikuluan jasotako mota bakoitzean, Deialdi honetako I. eranskinean azaltzen den dokumentazio teknikoan adierazitako alderdiak izan beharko dira kontuan, alderdi horiek honelakoak izanda:

– Ekintzen garapenean aintzat izan beharreko edukiak eta ezaugarriak deskribatzen dituzten jarraibide teknikoak.

– Diru-laguntzaren eskabidean ekintza-mota bakoitzerako barne hartu beharko diren puntu bereziak ezartzen dituen ekintzaren memoria deskribatzailea.

– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak, horietan ekintzak garatu bitartean eta amaitzean Hobetuzi eman beharreko produktu zehatzen ezaugarriak eta jarraipen-prozedura zehaztuz.

Halaber, memoria deskribatzailearen laburpena izango den eta proposamenaren edukia modu orokorrean jasotzen duen txostena entregatu beharko da.

7. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betekizunak, ziurtatzea eta mugak.

1.– EAEko enpresa, erakunde eta antolakundeak –herri-administrazioak ez direnak– izan ahalko dira diru-laguntzen eskatzaile eta onuradun, beren helburuetako bat 5. artikuluan ekintza finantzagarritzat jasotako jardueren garapena edo enplegurako lanbide-heziketari lotutako jardueren garapena bada, eta ezarritako oinarriak eta irizpideak arau honetan arautzen diren ekintza finantzagarrien eta betekizunen araberakoak direla aintzat hartuta.

2.– Espero diren emaitzak lortuko direla ziurtatzeko, 5.1 eta 5.2 artikuluetan araututako ekintzen eskatzaileek, 6. artikuluak aipatzen dituen arau teknikoetan ezarritako ekintzak autonomia eta sektore arteko mailan egiteko ahalmena duten erakundeak izan beharko dute.

3.– Erakunde batek aurkez ditzakeen eskabide-kopuruak ondorengo mugak izango ditu:

a) Hamar langile baino gutxiago dituzten erakundeek ezingo dute deialdi honetan bi ekintza baino gehiago eskatu. Ondorio horietarako, aurre-aurreko abendutik azarora bitarteko epealdian Gizarte Segurantzan lanbide-heziketarako kontzeptuarekin kotizatzen duten soldatapeko langileen kopuruaren bataz bestekoa joko da langile-kopurutzat.

b) Erakunde batek ezingo du deialdi honetan jasotako modalitate guztien artean hiru ekintza baino gehiago eskatu.

4.– Aurreko atalean ezarritako mugaren bat bete ezean, azken unean aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko. Eskabideek aurkezpen-data bera balute, ez dira erregistratutako azkenak onartuko.

5.– Aurkeztutako eskabide-kopurua edozein dela, erakunde bakar bat ezingo da deialdi honetan aurreikusitako lau ekintza baino gehiagotan eskatzaile bezala azaldu. Muga hori bete ezean, gainditzen duten erakundeak ez dira onartuko balorazio teknikorik txikienarekin onartutako ekintzen artean.

6.– Erakunde bakar bat gehienez bi ekintzen diru-laguntzaren onuradun izan ahalko da.

8. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaerak Hobetuz Fundazioaren egoitzetan aurkeztuko dira.

– Arabako Lurralde Egoitza, Dato, 14-16 - 3. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz.

– Bizkaiko Lurralde Egoitza, Kale Nagusia, 35 - 6.a. 48009 Bilbo.

– Gipuzkoako Lurralde Egoitza, Manterola, 4 - 1.a, 20008 Donostia-San Sebastián.

Era berean, 30/1992 Legeak, 1992ko azaroaren 26koak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea ezartzen duenak, bere 38.4 artikuluan aurreikusitako bulegoetan aurkez daitezke eskaerak.

Eskaera horiek paperean eta Hobetuzek www.hobetuz.com orrian deialdi honetarako eskainitako euskarri informatikoan aurkeztuko dira.

Paperean aurkeztutako datuen eta euskarri informatiko bidez aurkeztutakoen artean desadostasunik badago, paperean aurkeztutako datuak hartuko dira baliagarritzat.

2.– Eskaerak aurkezteko epea Agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2011ko irailaren 30ean amaituko da.

9. artikulua.– Eskaerak egiteko baldintzak.

1.– Eskaeran 5. artikuluan aurreikusitako ekintza bakar bat azaldu beharko da.

2.– Eskaeran, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

a) Eskatzailearen edo haren ordezkariaren izena, egoitza soziala, helbidea eta harremanetarako telefonoa.

b) Eskaera egiten duten legez baimendutako ordezkariaren identifikazioa eta sinadura.

c) Diru-laguntza zein ekintzatarako eskatzen den.

d) Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

e) Eskaeran emandako informazioaren eta datuen egiazkotasunari buruzko eskatzailearen aitorpena.

3.– Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Hala dagokionean, ordezkaritza hori egiaztatzen duen jatorrizko agiria, edo Hobetuzek edo fede-emaile publiko batek konpultsatutako kopia.

b) Eskatzailearen eta ordezkariaren, horrela denean, NANaren edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Behar bezala legeztatutako estatutuen fotokopia.

d) Entitatea dagokion administrazio-erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.

e) Diru-laguntzen bikoiztasuna eta prestakuntza-ekintzetarako gainfinantziazioa saihestearren, eskatzaileak zinpeko aitorpen bat aurkeztu beharko du, beste diru-sarrera edo laguntza publiko osagarririk ez duela jasotzen adieraziz (4. eranskina).

f) Edozein Administrazio Publikok prestakuntza-arloan emandako diru-laguntzak itzultzeko prozeduran murgilduta ez dagoela edo eskatu zaizkion zenbatekoak itzuli dituela adieraziko duen titularraren zinpeko aitorpena (4. eranskina).

g) Ogasun, Gizarte Segurantza eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari guztia ordainduta izanaren ziurtagiri eguneratuak.

h) Erakundeak sexu diskriminazioa egiteagatik administrazio-zigorrik edo zigor penalik jaso ez duela ziurtatzen duen zinpeko aitorpena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren (4/2005 Legeak, Emakume eta

Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa, aldatzen duena) 50. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren arabera, laguntza edo diru-laguntzen deialdietara ez aurkezteko zigorrik jaso ez dela ziurtatzen duen zinpeko aitorpena (4. eranskina).

i) 6. artikuluan eskaerarako adierazitako guztia eta 9. artikulu honetako 4. atalean garatutakoa.

Ez da beharrezkoa izango Hobetuzek, enplegurako lanbide-heziketako ekimenetarako berorrek emandako aurreko laguntza-eskaerak izapidetzeko aurkeztu izanagatik, eduki dituen agiriak aurkeztea, aurrez aurkeztutako horietan aldaketak izan direnean salbu.

4.– Eskabidearen balorazio teknikoan ondorengoa izango da kontuan:

a) Diru-laguntzak xede duen ekintzaren helburuaren antzekoak edo horren ingurukoak diren eta eskatzaileak egin dituen lan nagusien zerrenda, enplegurako lanbide-heziketaren esparruan diruz lagundu direnak bereizirik.

b) Diru-laguntzaren xede den ekintzaren kudeaketarako gaitasun teknikoa egiaztatzen duen memoria, erakunde eskatzaileak dituen eta, hala badagokio, ekintzaren garapenean esku hartzen duten erakundeak edo erakundeek dituzten baliabideak adieraziz.

c) Ekintzaren zuzendaritza teknikoaren profila eta curriculum vitaea.

d) Lan-taldeko kideen profila.

e) Gauzatzeko egutegia, aurreikusitako fase edo jarduera bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak zehaztuz.

f) Fase edo jardueren inguruan aurreikusitako giza baliabideak: fase edo jarduera bakoitzaren garapenaz arduratutako erakundeak, langileen profila eta kopurua, eta ekintzari zenbat ordu eta eginkizun eskainiko zaizkion aurreikusiz.

g) Ekintzaren garapenaren fase edo jarduera bakoitzerako eskatutako diru-laguntza banakatuta.

h) Ekintzaren garapenean esku hartuko dutela aurreikusitako erakundeak, horren faseren bat garatzeko kontratatzea aurreikusitako enpresak, zein ekintzaren beste exekuzio- edota hedapen-modalitateetan esku hartzen duten erakundeak eta profesionalak barne hartuta. Ondorio horietarako, erakunde horiek «lankidetza-eranskinak» betez identifikatu beharko dira, era eranskin horietan lankidetzaren baldintzak eta esku hartuko duela aurreikusitako ekintzaren xedearen antzeko edo inguruko lanak zehaztuko dira. «Lankidetza-eranskin» bana aurkeztu beharko du eskatzaileak erakunde parte-hartzaile bakoitzeko, eta eranskin horrek dagokion erakundeak sinatuta egon beharko du. Diruz lagundutako ekintzaren zati baten exekuzioa onuradunari lotutako pertsona edo erakundeekin hitzartzen denean edo hitzartutako jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa denean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, diru-laguntza ematen duen organoaren baimena eskatu beharko du erakunde onuradunak, eta horretarako, lankidetza-eranskin hori bera sinatu eta hitzartzen den jarduerarako aurreikusitako zenbatekoa eta erakunde bien artean loturarik dagoen adierazi.

i) 6. artikuluak aipatzen duen dokumentazio teknikoko «memoria deskribatzailea» ataleko ekintza-mota bakoitzerako zehaztutako edukiak barne hartuko dituen memoria. Memoria hori Word formatuan aurkeztuko da, eta gehienez ere 30 orrialde izango ditu, eranskinak barne.

10. artikulua.– Eskaera zuzentzea.

Aurkeztutako eskabideak 9.2 eta 9.3 artikuluetan ezarritako baldintzak bete ezean, hamar eguneko epearen buruan huts egitea zuzendu edo dagozkien agiriak aurkezteko eskatuko die

Hobetuzek interesatuei zera jakinaraziz, hori egin ezean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua behartuta egongo dela eskabide horri buruzko ebazpena ematera eta jakinaraztera.

Orobat, 9.4 artikuluan barne hartutako edozein atal argitzeko eskatu ahal izango da.

11. artikulua.– Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Ekintza-mota bakoitzerako II. eranskinean jasotako irizpideen araberako balorazio teknikoaren metodologia aplikatuz egingo da eskaeren balorazio teknikoa, haztapena adieraziz.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzea.

1.– Eman beharreko diru-laguntza ezartzeko, adierazten den finantzazio-metodologia aplikatuko da, honako hauek aintzat hartuta: egin beharreko ekintzak, kontzeptu ezberdinetarako eskatutako zenbatekoa, eta finantzazio-zehaztapenak eta ekintza-mota bakoitzerako 4., 5. eta 12.3 artikuluetan ezarritako finantzatu beharreko proiektu kopurua.

1) «Aukeraezinak» izateagatik kostuen eta ondorengo finantzazioaren analisian barne hartu ezin diren jarduerak, baliabideak edota produktuen identifikazioa (Jarduera edota fase aukeraezinen eta kontzeptu aukeraezinen kostuak).

2) Eman beharreko diru-laguntza eskaeran barne hartutako jarduera aukeragarrietara egokitzeko helburuarekin, aurrekontuan jasotako ekintzak egingo diren ekintzen aldean gehiegi baloratuta ez daudela egiaztatzea.

3) Diruz lagundu ahal den Kostu Onartua (DKO) ezartzea; kostu hori eskatutako diru-laguntzari, diruz lagundu ezinezko jarduerak, baliabideak edota produktuak eta gehiegizko balorazioa kenduta kalkulatuko da.

4) Onarpen-proposamena duten ekintzei eman beharreko diru-laguntza, proiektuarekin proportzioan ezarriko da, ekintza-mota bakoitzerako dagoen guztizko aurrekontua, eskatutako diru-laguntza, izandako balorazio teknikoa eta onarpen-proposamena duten eskaera-kopurua aintzat hartuta.

2.– Ondorengo kostu zuzenak eta kostu elkartuak joko dira kostu finantzagarritzat:

1) Diruz lagundutako ekintzen kostu zuzenak:

a) Barruko eta kanpoko langileen ordainsariak, horien artean soldatak, gizarte-aseguruak eta, oro har, onartutako ekintzak burutzeko jardueretan esku hartzen duten langileei egotz dakizkiekeen kostuak barne hartu ahal direla.

b) Erabilitako ekipo didaktikoak eta plataforma teknologikoak amortizatzeko gastuak. Horiek kalkulatzeko, kontabilitate-arauetan onartutako amortizazio-irizpideak jarraituko dira. Era berean, onartutako ekintzak gauzatzeko erabili beharreko ekipo didaktikoak eta plataforma teknologikoak alokatzeko edo finantza-errentamenduko gastuak barne hartuko dira, interesak kanpo utziz.

c) Onartutako ekintzak burutzeko erabilitako ondasun kontsumigarrien gastuak.

d) Onartutako ekintzak garatzeko erabili beharreko lokalak alokatzeko, finantza-errentamenduko edo amortizazio gastuak barne hartuko dira, interesak kanpo utziz.

e) Onartutako ekintzetan esku hartzen duten langileei egotz dakizkiekeen autonomia-lurralde barruko garraio, mantenu eta ostatuko gastuak, Foru Ogasunen xedapenetan ezarritako mugekin.

Atal honetan, autonomia-lurralde barruko eta kanpoko garraio, mantenu eta ostatuko kostuak barne hartu ahal izango dira, diru lagundutako ekintzaren bat garatzeko beharrezkoa denean.

f) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko zuzenean sortzen diren eta gainerako atalean jaso ez diren kostuak, hala nola, publizitatea, hedapena eta komunikazioa.

2) Diruz lagundutako ekintzei lotutako kostuak: argia, ura, berogailuak, telefonoa, mezularitza, posta, garbiketa, zaintza eta planaren gauzatzearekin erlazionatuta dauden eta lehen aipatu ez diren beste kostu batzuk.

Kostu horiek guztiak onuradunak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio, dagokion atalean, onartutako kontabilitateko arau eta printzipioetan adierazitako moduan eta, edozein kasutan, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira.

Kostu elkartuen batura ezingo da izan diruz lagundutako ekintzen kostu zuzenen guztizkoaren ehuneko 10etik gorakoa.

3) Edozein kasutan, eranskin honetan diruz lagun daitezken kostutzat aurreikusitako kostuak kostu errealak izango dira, egin eta ordaindu diren eta fakturen edo pareko balioko kontabilitate-dokumentuen bitartez justifikatu diren kostuak alegia.

3.– Mota bakoitzeko finantzatu beharreko gehienezko ekintza-kopurua ondorengoa izango da:

a) 5.1 artikuluan araututako enplegurako lanbide-heziketa sustatu eta hedatzeko ekintzetatik, balorazio teknikorik onena lortzen dutenak aukeratuko dira, ekintza-mota hauetarako dauden funtsen arabera.

a) Informazio- eta orientazio-zerbitzu integratuak enplegurako lanbide-heziketan esperimentatzeko eta 5.2 artikuluan araututako ekintzetatik, balorazio teknikorik onena lortzen dutenak aukeratuko dira, ekintza-mota hauetarako dauden funtsen arabera.

c) 5.3 artikuluan araututako prestakuntza-prozesu, -produktu eta -tresnetako berrikuntza-ekintzetatik, balorazio teknikorik onena lortzen dutenak eta aipatu artikuluko atal ezberdinetan zehazten diren tresna- eta erreminta-lerrorik askotarikoena ordezkatzen dutenak aukeratuko dira, ekintza-mota hauetarako dauden funtsen arabera.

Prestakuntza-produktuen kopien argitalpena eta banaketa ezingo dira finantzatu.

d) Prestakuntza, kualifikazio eta enpresa-garapeneko proposamenen inguruan hausnartu eta horiek aztertu, esperientziak elkartrukatu eta proposamenak lantzeko eztabaida-guneak sortzeko eta 5.4 artikuluan araututako ekintzetatik, baloraziorik onena lortzen dutenak diruz lagunduko dira, artikulu berean ezartzen den gehienezko finantzazio-mugarekin. Gai bakoitzeko ekintza bat baino gehiago aukeratu ahal izango da, baldin eta jorratutako alderdiak berberak ez badira.

e) Zeharkako eta sektore anitzeko azterlanak egiteko eta 5.5 artikuluan araututako ekintzetatik, balorazio teknikorik onena lortzen dutenak diruz lagunduko dira. Gai bakoitzeko azterlan bat baino gehiago aukeratu ahal izango da, baldin eta jorratutako alderdiak berberak ez badira.

4.– 5.3 artikuluan araututako ekintzetatik, ondorengo egoeraren batean dauden produktuak baztertuko dira:

a) Tresnak, 6. artikuluak aipatzen duen dokumentazio teknikoan exijitutako ezaugarriak betetzen ez baditu.

b) Antzeko tresnak badaude.

c) Deialdi berean eskatutako antzeko tresnaren bat badago, eta balorazio tekniko hobea lortzen badu.

5.– Produktu bera garatzeko bi proposamenek edo gehiagok balorazio tekniko bera lortzekotan, II. eranskinean adierazten den balorazio teknikorako metodologian aurreikusitako lehen bi balorazio-multzoetan puntuaziorik altuena lortu duena aukeratuko da.

13. artikulua.– Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena.

1.– Hobetuzek aztertuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta aurkeztutako laguntza-eskabide bakoitza ukatzeko edo guztiz edo partzialki onartzeko ebazpena emango du. Proposamen horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorriko ditu dagokion ebazpena eman dezan.

2.– Hobetuzek egindako proposamena aztertu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion Ebazpena emango du, eta onuradunen eta emandako zenbatekoen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Interesatuak 10 eguneko epea izango du, zuzendari nagusiaren ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita, emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko. Epe hori amaitzean, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da eta artxibatu egingo da.

3.– Zuzendari nagusiaren ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren aurrean.

4.– Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eta hori igarota ez bada jakinarazpenik egiten eskaera ezetsitzat emango da.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Diru-laguntza ordaintzeko, ordainketa bakoitzaren aurretik onuradunak aurkeztu beharko ditu Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko eta/edo kasuan kasuko gizarte aurreikuspeneko erakundearekiko betebeharrak bete dituelako ziurtagiri eguneratuak.

2.– Ordainketak egutegi honen arabera egingo dira:

a) Diru-laguntzaren % 80ra arteko lehen ordainketa, ebazpenaren unean. Lehen ordainketa hori 180.303,64 eurotik gorakoa bada, titularrak bankuko abala aurkeztu beharko du, ebazpenarekin batera adieraziko diren jarraibideak kontuan izanik, edo bestela plana gauzatzerakoan dagoeneko sortutako gastuen justifikazioa, justifikatu gabeko gainerakoak kopuru hori gainditzen ez badu.

b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoagatik, justifikazio-memoria Hobetuzi aurkeztu eta azken likidazioa onartu bezain laster.

15. artikulua.– Ekintzak egiteko epea.

Diruz lagundutako ekintzak egiteko epea, 13. artikuluak aipatzen duen Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta 2012ko irailaren 14an amaituko da.

16. artikulua.– Ekintzak burutzea.

1.– Diru-laguntzaren onuradunak berak ondorengo jarduerak burutu beharko ditu, eta ezingo du hirugarren batzuekin kontratatu horren osoa edo partziala:

– Diruz lagundutako ekintzaren diseinua.

– Azken emaitzak eta txostenak egitea.

– Ekintza burutzeko fase guztiak koordinatzea.

Diru-laguntzaren erakunde onuradunak bere giza baliabideak eta baliabide materialak eduki beharko ditu, egin behar dituen jardueretarako. Dena dela, diruz lagundutako jardueraren gauzatzea Administrazioaren aurrean duen erantzukizuna gain hartuko du, eta erakunde onuradunak nahiz parte-hartzaileek jarraipen- eta kontrol-erakundeen eginkizunak behar bezala betetzen ari direla ziurtatu beharko du.

Ekintzaren gauzatzean esku hartzen duten erakundeek ezingo dute kontratatu hirugarrenekin, aldi berean erakunde onuradunarekin sinatutako kontratuaren xede den helburua.

2.– Hirugarren batzuek egin ahal izango duten diruz lagundutako jarduera ezingo du guztizko diru-laguntzaren % 80tik gorakoa izan. Salbuespen gisa eta, betiere, diru-laguntzaren onuradunak bultzatu eta egiaztatuta, Hobetuzek portzentaje horren gorakada baimendu ahalko du.

Onuradunak ezingo ditu, inola ere, hirugarrenak azpikontratatu, jardueraren kostua areagotuz, baldin eta jarduerari balio erantsirik gehitzen ez bazaio.

3.– Diruz lagundutako ekintzaren zati baten exekuzioa onuradunari lotutako pertsona edo erakundeekin hitzartzen denean edo hitzartutako jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa denean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, diru-laguntza ematen duen organoari baimena eskatu beharko dio erakunde onuradunak, deialdi honetako 9.4 artikuluan ezarritakoaren arabera lankidetza-eranskina betez.

Baimen hori diru laguntza emateko ebazpenean bertan eman ahal izango da, deialdiaren 8.2 artikuluan ezarritako epean aurkeztu bada.

Erakunde onuradunak baimena diru-laguntzaren emakida-ebazpenaren ondoren eskatzen duenean, ondorengo ebazpen bidez eman ahal izango da. Baimen hori emantzat joko da, eskaera aurkezten denetik 15 egun igaro eta organo emaileak ezer ez adieraztekotan.

4.– Erakunde onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko du azpi-kontratatutako erakundeak aukeratzeko, azpi-kontratazioaren xede den jardueraren zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa denean.

Diru-laguntzaren justifikazioan aurkeztu beharreko eskaintzen artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomikoaren irizpideen arabera aukeratuko da, eta memoria batean justifikatu beharko da hautespen hori, proposamen ekonomikorik onuraduna ez denean.

5.– Finantzazio-eskaera ukatu zaion erakundeak mota, gai edo produktu berbereko beste ekintza batean lagundu ahal izango du, inolako kosturik gabe.

6.– Erakunde batek ezingo du onartutako lau ekintza baino gehiagotan lagundu.

7.– 9.4.c) artikuluan aurreikusitako zuzendari teknikoak dagozkion eginkizunak izateaz gain, Hobetuzekin komunikazioak izateko eta 17. artikuluan araututako bileretara joatekoak ere izango ditu.

8.– Diru-laguntzen onuradunek finantzazioaren izaera publikoa jakinarazi beharko dute. Halaber, amaierako produktuetan, onartutako ekintzaren hedapen- eta informazio-ekintzetan eta horien ondoriozko argitalpenetan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hobetuzen logoak jaso beharko dituzte.

17. artikulua.– Diruz lagundutako jardueraren garapenaren jarraipena.

1.– Hobetuzek diruz lagundutako ekintzen garapenaren jarraipena egingo du, artikulu honetan aurreikusitako modalitateen arabera.

2.– Emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak.

3.– Emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, eta horretan honako hauek jaso beharko dira, horretarako bideratuko den ereduaren arabera: ekintza identifikatzen duten datuak, ekintzaren edukiaren laburpena eta horren gauzatzearen egoera.

Diruz lagundutako ekintzen gauzatze-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin.

4.– Ekintzak gauzatzen diren bitartean, 6. artikuluan aipatzen den dokumentazio teknikoko «Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak» atalean, ekintza-mota bakoitzerako adierazten diren agiriak bidali beharko dizkio Hobetuzi onuradunak.

5.– Era berean, diruz lagundutako ekintzaren garapenean gertatzen den edozein intzidentzia edo aldaketa jakinarazi beharko dio onuradunak Hobetuzi, emakidaren ebazpeneko helburua edo baldintzak aldatu gabeko prozesuen egokitzea denean. Intzidentzia horiek gertatzen direnean jakinarazi behar dira, eta edozein kasutan, ezarritako gauzatze-epea amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez. Erakunde berri bat parte-hartzaile gisa sartzeko proposamena egiten denean, jakinarazpenarekin batera 9.4.h) artikuluan ezarritakoaren arabera betetako lankidetza-eranskina aurkeztu beharko da, eta edozein kasutan, 16.5 eta 16.6 artikuluetan ezarritako muga eta baldintzak kontuan izanda.

6.– Hobetuzek erakunde onuradunaren ordezkariei deitu ahal izango die, tokian bertan egiaztatzeko jarduketak egiteko eta ekintza deialdiaren zehaztapen teknikoetan ezarritako baldintzak betetzen dituela bermatzen duten ohar eta gomendioak emateko eta, hala badagokio, garapenaren orientazioak emateko.

7.– Beharrezkotzat jotzen dituen datuak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Hobetuzek interesatuei, ekintza gauzatzen den bitartean, horren garapenaren behar bezalako egiaztapena ahalbidetzeko eta, 10 eguneko epean, eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik, eskatutako dokumentuak aurkezteko.

8.– Ezarritako jarraipen-modalitateen arabera diru lagundutako jardueraren garapenean desbideratzeak hautematen direnean, eta horiek emakidaren ebazpenaren helburua edo baldintzak aldaraz dezaketenean, onuradunari jakinaraziko zaio jarduera ebazpenaren baldintzetara berregoki dezan.

18. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa.

1.– Onuradunak diruz lagundutako jardueraren gauzatzea justifikatu beharko du, eta baita jarduera horrek sortutako gastuak ere. Horretarako, deialdi honetako 12.2 artikuluan jasotako diruz lagun daitezkeen kostuen zerrenda izan beharko ditu kontuan.

2.– Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2012ko irailaren 14an amaituko da.

3.– Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, ezarritako baldintzak betetzen direla eta diru-laguntzaren emakidaren ebazpenean aurreikusitako helburuak lortuko direla justifikatuko du onuradunak, Hobetuzen aurrean hori guztia justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuz.

Diru-laguntza justifikatzeko ezarritako epea iragan eta atal honetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu izan ez balitz, luza ezinezko 15 eguneko epean dokumentazio hori aurkezteko eskatuko dio Hobetuzek onuradunari. Epe hori amaitu eta justifikazioa aurkeztu ezean, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da edo, hala badagokio, 19. artikuluan aurreikusitako itzulketa-prozedura abiaraziko da.

Dena den, aurkeztutako dokumentazioa emandako diru-laguntza behar bezala justifikatuta dagoela jotzeko nahikoa ez balitz, Hobetuzek hautemandako gabezia horien berri emango die onuradunei, 10 eguneko epean zuen ditzaten.

4.– Justifikatzen duen dokumentazioak honako hauek barne hartu beharko ditu:

a) Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lotutako emaitzak adierazita. Memoriak diruz lagundutako ekintzaren amaierako ziurtapena barne hartuko du, Hobetuzek horretarako emandako ereduan.

b) Amaierako produktuak, 6. artikuluan aipatutako dokumentazio teknikoan ekintza-mota bakoitzerako ezarritako baldintzen arabera.

c) Diruz lagundutako ekintzaren kostua justifikatzen duen kontua, honako hauek barne hartuta:

1) Ekintza egiteko sortu diren eta diruz lagun daitezkeen gastuen zerrenda sailkatua.

2) Diruz lagundutako ekintzaren inguruko kostuak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Zentzu honetan, fakturekin edo merkataritza-trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo diruz lagun daitezkeen gastuen administrazio-eraginkortasuna duten agiriekin egiaztatuko dira kostuak, eta baita, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioarekin ere.

3) Diru-laguntza jaso duen jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarreren eta laguntzen zerrenda xehakatua eta, daudenean, zenbatekoa eta jatorria zehaztuz.

4) Diruz lagundutako ekintzaren zati bat hirugarren batzuek egin dutenean eta zati horren kostua 12.000 eurotik gorakoa izan denean, zuzkitzaile batek zerbitzua emateko konpromisoa hartu baino lehen hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira edo, bestela, azpi-kontratistarekin kontratua sinatu. Proposamen ekonomikorik onuragarriena aukeratzen ez denean, hautua justifikatzen duen memoria aurkeztu beharko da.

5) Erakunde onuradunak diruz lagundutako ekintzarako egiten dituen gastu elkartuak diruz lagundu ahal izango dira, ekintzen kostu zuzen guztien ehuneko hamarra gainditzen ez dutenean. Gainera, diruz lagundutako jarduerari esleitu beharko zaizkio bidezko metodo zuzen baten arabera, eta idatziz jaso beharko da gastua egin baino lehen eta diru-laguntza justifikatzeko fasean bidali, 18.1 artikuluan kostuak justifikatzeko Arauak ezartzen duenaren arabera.

6) Onuradunak egindako ordainketak, artikulu honetan araututako diru-laguntza justifikatzeko fasean egiaztatu beharko dira. Egiaztapen hori banku-laburpenen edo ordainketen eraginkortasuna frogatzen duten beste agiri batzuen bitartez egingo da, aipatu atalean kostuak justifikatzeko Arauak ezartzen duenaren arabera.

7) Diru-laguntzaren onuradunak diru-laguntzaren emakida oinarritzen duen jarduera garatzen dela ziurtatzen duten agiriak gorde behar ditu 4 urtez, bai eta jasotako funtsen erabileraren

ziurtagiriak ere. Epe hori, onuradunak aipatu justifikazioa aurkezteko ezarritako epealdia amaitzen den unean hasiko da kontatzen.

19. artikulua.– Diru-laguntza itzultzea.

1.– Ondoren aipatzen diren kasuetan, jasotako laguntzak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira laguntza ordaintzen den unetik:

– Laguntzaren helburua edo laguntza emateko agindutako baldintzak ez betetzea.

– Jarduera egin izana eta laguntza ematea eta baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

– Bete beharreko baldintzak bete gabe laguntza lortu izana.

– Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

– Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz datu faltsuak ematea, errealitatearekin bat ez datozenak.

– Agindu honetan zehaztutako beste edozein obligazio, baldintza edo betebehar errespetatu ez izatea.

2.– Itzultzeko prozedurari Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren idazki bidez emango zaio hasiera, eta idazkia Hobetuzek bidaliko dio laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzat joko dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren berme eta itzulketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

3.– Alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan onuradunak alegaziorik aurkeztu ez badu edo alegazioak onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak itzulketa eskatzeko ebazpena emango du, eta itzulketa hori ebazpenean adierazitako epean gauzatu beharko du. Horretarako, Hobetuzek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bideratuko du dagokion espedientea, errekerimendu-idazkiarekin eta alegazioekin batera; eta, hala badagokio, alegazioak atzera botatzeko proposamena egingo du Administrazio honek itzultzeko beharrari buruzko ebazpena eman dezan.

4.– Epea amaitutakoan itzulketa gauzatu ez badu, beharrezko izapideak jarriko dira abian, itzuli beharreko diru-kopuruak premiamendu-bidetik berreskuratzeko. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira.

20. artikulua.– Datuen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, laguntza-eskabidea betetzean interesdunak datu horiek Hobetuzen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren fitxategi informatizatuetan sartzeko baimena ematen duela ulertuko da. Aipatu Legean aurreikusten diren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta alderatzeko eskubideak Hobetuz - Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren aurrean (kale Nagusia 35 - 6.a, 48009 Bilbao) eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean gauza daitezke.

21. artikulua.– Produktuak ustiatzeko eskubideak.

Diruz lagundutako ekintzak transferitu ahal direla egiaztatzeko, diru-laguntzaren onuradunak egindako materialaren ustiapen-eskubideak laga beharko dizkio organo emaileari, eskubide horiek

onuradunaren alde gordez, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Gorago deskribatutako eskubideak lagatzea, diruz lagundutako ekintzaren emaitza eta produktuei dagokiela ulertuko da. Produktu horiek erabiltzean edo horiek ustiatzeko eskubideak betetzean ezingo da diru-irabazirik atera.

I. ERANSKINA

DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

1.– ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETA SUSTATU ETA HEDATZEA.

1.1.– Arau teknikoak.

Atal honetan, deialdiaren 5.1 artikuluan jasotako ekintzek izan behar dituzten ezaugarriak eta horiek garatzeko jarduerak azaltzen dira.

Ekintza hauek prestatzeko ondorengo jarduerak izan beharko dira kontuan:

a) Diseinu eta plangintzako jarduerak. Sustapen- eta hedapen-ekintzen komunikazio-plana estrategikoa garatu beharko da, eskaeran proposatutako helburuak, publiko hartzailearen definizioa, hedabideen plana eta lortu beharreko helburuen ebaluazioa aintzat hartuta.

Garatu beharreko plan estrategikoa aurreko urteetan lortutako helburu osagarrietara bideratuko da, zein helburu lortu nahi den zehaztuz, eta biztanleria eta sektorea adieraziz eta programatutako sustapen- eta hedapen-jarduerekin erlazionatuz. Hedapen-jardueren hartzaileak, besteak beste, ondorengo kolektibo hauek izango dira:

– Langileak, oro har.

– Enpresak, oro har, eta bereziki 50 langile baino gutxiagoko mikroenpresak eta enpresak.

– Aldi baterako langileak.

b) Enplegurako lanbide-heziketaren sustapen- eta hedapen-ekintzen irismen eta eraginaren balorazioa. Balorazio horrek adituek egindako ebaluazioa barne hartu beharko du, eta horren helburua aurreko proiektuan hautemandako alderdi kritikoen eta zailtasunen diagnostikoa egitea izango da. Balorazioa egin baino lehen, ondorengo hauek aurkeztuko dira: aditu horien profila eta egin beharreko ebaluazioaren eskema, mezua zenbat pertsonai igorri zitzaion, zenbat pertsonak jaso zuten informazio gehiago eta hedabideetan izandako hedadura. Horretarako, Hedabideen inkesta orokorraren eta hedapena justifikatzeko bulegoaren (OJD) datuak erabiliko dira.

c) Proiektua abian jartzea: fase honetan beharrezko tresnak garatu eta agindutako sustapen- eta hedapen-jarduerak abiaraziko dira. Bereganatzeko modurik merkeenak aukeratu beharko dira beti, aukera daitezkeen kostuak errespetatuz. Hedatu beharreko edukiek, azpi-sisteman aurreikusitako enplegurako lanbide-heziketaren akordioak eta ekimenak barne hartu beharko dituzte. Ondorengo gaiei buruzko informazioa ere eman ahal izango dute:

– Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalaren garapena.

– Lanbide-heziketari buruzko informazioa eta orientazioa.

– Lan-esperientziaren edo prestakuntza-bide ez formalen bitartez bereganatutako lanbide-gaitasunak egiaztatu eta ebaluatzea.

– Lan-merkatuak jarduera-sektore ezberdinetan eskatutako prestakuntza-espezialitateak.

Hedabideak aukeratzean, aurreko deialdietako hedapen-kanpainen balorazioak izan beharko dira kontuan, hedabiderik eraginkorrenei lehentasuna emanez, ekintzaren hedadura areagotzeko. Kolektibo hartzaileari egokitu beharko zaizkio hedabideak.

d) Ekintzaren emaitzak neurtzeko ezarritako adierazleak aztertu beharko dira, langile-kopuruaren eta jardueren enpresa hartzaileen arabera.

e) Lortutako emaitzen amaierako txostenak prestatzea: fase honek egindako ekintzaren emaitzen analisia eta hedapen-jarduera bakoitzaren eragin eta eraginkortasunaren dagozkion ebaluazio-txostenetatik ondorioztatutako ondorioak barne hartuko ditu. Era berean, horren efektu biderkatzailea bermatzeko dagozkion proposamenak egingo ditu.

1.2.– Proiektua deskribatzen duen memoria.

Honelako ekintzetarako diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria deskribatzaileak honako alderdi hauek barne hartu beharko ditu:

a) Proposamenaren justifikazioa: horren testuingurua eta erabilgarritasuna, hedapena zein arloren inguruan oinarrituta egongo den eta deialdian zehaztutako eduki eta baldintzekiko egokitzapena.

b) Helburu orokorrak eta bereziak.

c) Ekintzaren eremu hartzailearen deskribapena.

– Autonomia-mailan izango duen eraginaren justifikazioa.

– Ekintzaren hartzaileak: proiektua osatzen duten hedapen-jardueren hartzaile izango den kolektiboaren deskribapena, langile- edota enpresa-kopurua adieraziz.

d) Deialdi honetan barne hartzen diren ekintzen irismena eta eragina baloratzeko metodoaren deskribapena. Eskaeran proposatzen den hedapen-jarduera ezberdin bakoitzerako, espero diren emaitzen berri eman beharko da, pertsona edo enpresa hartzaileen kopurua adieraziz.

e) Sustapen- eta hedapen-jardueren deskribapena, besteak beste, ondorengo hauek zehaztuz:

– Kanpainaren eta lortu beharreko gutxienezko txertatze-helburuen iraupena.

– Kanpaina kontrolatzeko adierazleak, arduradunak identifikatuz (esperientzia, sortzeko ahalmena eta kalitatea).

– Informazioaren xede izango diren arloak.

f) Hedabideen plana. Besteak beste ondorengo adierazleak azaltzea: aukeratutako hedabideak, txertatze- eta inprimatze-kopurua euskarri bakoitzeko eta beren kostua. Idatzizko prentsaren kasuan, erabili beharreko lehentasunezko formatua adierazi beharko da, hala nola: orrialdearen neurriaren adibidea/orrialde osoa, bakoitia, kolorea (kuatrikromia).

g) Hedapen-jardunaldi, mintegi, topaketa-foro edo antzeko ekintzen kasuan, ondorengoei buruzko informazioa eman beharko da:

– Gutxi gorabehera aurreikusitako kopurua eta bertaratze bideko hedapen-ekintza bakoitzaren kolektibo hartzailearen deskribapena.

– Ekintza bakoitzaren iraupena.

– Ekintzen edukiak.

– Hedabideen deialdia.

– Aurreikusitako deialdiaren deskribapena: telematikoa, telefono edo mailing bidezkoa, kartel iragarleak, sustapeneko langileak edo bestelako komunikazio-tresnak, horiek ETEei kanpinaren helburuen eta antolatu beharreko jazoeretarako asistentziaren inguruko informazioa eta sutapena ematen dutenean.

h) Aurreko deialdietan garatutako ekintzen inguruko hobekuntza-plana.

1.3.– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak.

1.3.1.– Deialdian laguntzen jarraipenaren inguruan ezarritako aurreikuspen orokorrak baztertu gabe, proiektuaren gauzatzea ebaluatuko da garatzen den bitartean.

Helburu horrekin, diruz lagundutako jarduerak garatzen diren instalazioak bisitatu ahal izango ditu Hobetuzek, edo Fundazioaren egoitzan edo horretarako egokitutako beste lekuren batean egoki irizten dituen bilerak egiteko deialdia egingo dio onuradunari.

1.3.2.– Ekintza gauzatzeko fasean zehar, honako hauek entregatu beharko dira:

1.– Deialdiaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak.

2.– 17.3 artikuluak ezartzen duenaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera beteta.

Diruz lagundutako ekintzen exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin, gauzatze-aldian zehar.

3.– Zuzeneko hartzaileak. Gainera, langile- eta enpresa-kopurua, enpresa-mota, zein sektoretakoak diren eta lurralde-mailako ezaugarriak adierazi beharko dira.

4.– Egindako prestakuntzaren sustapen- eta hedapen-ekintzen irismen eta eraginaren ebaluazioaren ondorio nagusien aurrerapena, ondorio horiek jarraipen-ekintza honetan proposatutako ekintzen planteamenduari eragin ahal diotenean.

5.– Hedabideen planari buruzko txostena; horretan, idatzizko eta irrati edo Internet bidezko hedabideak zehaztuko dira, horiek zergatik aukeratu diren justifikatuz eta izenak, formatuak, txertatze-kopurua, datuak, emanaldi-kopurua, emisio-orduak eta hedabide horien irakurle edo bisitarien kopurua. Interneten kasuan, bisitak ematen dituzten programen bitartez.

Hobetuzek erakunde onuradunak proposatutako formatuen plangintza aldatu ahal izango du, baldin eta horrentzat kostu gehigarria ez bada.

Maketak egin ondoren eta publiko hartzaileari aurkeztu baino lehen, mezuaren eraginkortasuna egiaztatzeko testa egin beharko da, test horren emaitzei buruzko txostena bidaliz.

6.– Programaren irudia eta idatzizko prentsarako nahiz euskarri digitaletarako bere aplikazioak, zein hedapen-ekintzetan erabiliko diren irudi, sustapen eta informazioko elementuen (logotipoak, kartelak, foiletoak, aurkezpenak, etab.) ikusizko proposamena sortu eta diseinatzea.

7.– Hedapen- eta sustapen-ekintzak burutzean egindako lanen funtzionamendu eta kalitatearen alderdi ezberdinei buruzko aldizkako informazioa:

– Proiektuan esku hartzen duten pertsonen izenen zerrenda (adibidez, adituak, informatzaile klabeak, etab.), kargua eta zein erakunde edo enpresatakoak diren adieraziz.

– Hala badagokio, bilera, lan-saio, eztabaida-talde edo antzekoen aktak edo txostenak, bertaratutakoen zerrenda, jorratutako gaiak eta zein leku eta egunetan izan diren adieraziz.

– Hedatutako dokumentu-baseak.

– Hala badagokio, proiektuaren barruan egindako hedapen-materialaren kopia (triptikoak, kartelak, web orriak, etab.).

1.3.3.– Proiektua amaitzean:

1.– Gauzatzearen amaierako txostena, ekintzaren helburuak, garatutako estrategia, jarduketen deskribapena eta lortutako inpaktuak barne hartuz. Honako hauek aurkeztuko dira eranskin gisa:

– 2011ko deialdian garatutako sustapen- eta hedapen-ekintzen funtzionamenduaren balorazio-emaitzei buruzko txostena eta, hala badagokio, esku hartu duten adituen akta sinatuak erantsiz.

– Hala badagokio, enplegurako lanbide-heziketako hainbat ekimeni buruzko informazioa hedatzeko posta edo beste bide batzuen bidezko igorpenen egiaztagiriak.

– Prentsa-dosierra, prentsan egindako iragarpenak, erabilitako baliabideak, argitaratze-egunak eta emisio-ziurtapenak barne hartuta. Prentsa digitalaren kasuan, horien inprimatzeak aurkeztuko dira.

– Irrati edo telebista bidez egindako hedapen-jardueren inguruan emandako iragarkien grabazioak, erabilitako baliabideak eta argitaratze-datak.

– Azpi-sistemaren hedapena helburu duten enpresa edota langileen bileren eta mintegien soinu-grabazioak.

– Jardunaldi, mintegi edo topaketa foroak egin direla egiaztatzen duen dokumentazioa:

• Ekitaldien egutegia eta lekuak.

• Egutegiak, jorratutako gaiak, garatutako ponentziak.

• Hedatu edo aurkezteko erabilitako materialaren kopia (triptikoak, gonbidapenak, prentsako iragarkiak, etab.).

• Bertaratutakoei emandako materialaren kopia.

• Bertaratutakoen identifikazioa, sinaduren kontrola barne hartuta (horretan pertsonaren identifikazioa eta zein enpresa edo erakundekoa den azaldu beharko da).

– Ondorioak eta proposamenak.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintzaren gauzatzean esku hartu duen taldearen identifikazioa barne hartu beharko ditu. Honako hauek aurkeztuko dira:

– Bi kopia paperean.

– Bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko.

2.– Proiektuan esku hartu duten pertsonen izenen zerrenda, eta tartean, adituak, informatzaile klabeak, etab. Gainera, horien kargua eta zein enpresa edo erakundetakoak diren adierazi beharko da.

3.– Hala badagokio, bilera, lan-saio, eztabaida-talde edo antzekoen aktak edo txostenak, bertaratutakoen zerrenda (eta sinadurak), jorratutako gaiak eta zein leku eta egunetan izan diren adieraziz.

4.– Egindako ekintzaren eraginkortasun eta efizientziaren azterketari buruz informazioa jaso duten langile- eta enpresa-kopuruen adierazleen bidez egindako txostena.

5.– Egindako jarduerak eta helburuak deskribatzen dituen «abstract» edo laburpen zehatza eta motza, 20 lerro ingurukoa.

6.– Egindako jardueren, espero ziren eta lortu diren emaitzen, ondorioen eta egindako jarduerei jarraitutasuna emateko proposamenen deskribapen laburra barne hartzen duen laburpena.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintza gauzatu duen taldearen identifikazioa barne hartu beharko ditu, eta gehienez ere 200 orrialdekoa izango da. Lau kopia entregatuko dira: bi paperean eta beste bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko. Hori dela-eta, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berori garatzen duen gainerako araudian xedatutakoa bete beharko da.

Deialdiaren 17.7 artikulua betez, ekintzaren fase bakoitzaren garapena egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein dokumentazio izan eta entregatu beharko du erakunde onuradunak, Hobetuzek eskatzen badio.

Produkturen bat Interneten badago eskuragarri, onuradunak Hobetuzi URL helbidea eta horietara, proiektua garatzen den bitartean, sartzeko behar diren gakoak eta jarraibideak eta ziurtapena jakinarazi beharko dizkio.

2.– INFORMAZIO- ETA ORIENTAZIO-ZERBITZU INTEGRATUAK ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETAN ESPERIMENTATZEA.

2.1.– Arau teknikoak.

Atal honetan, deialdiaren 5.2 artikuluan jasotako ekintzek izan behar dituzten ezaugarriak eta horiek garatzeko jarduerak azaltzen dira.

Ekintza horiek honako jarduera hauek barne hartu beharko dituzte:

a) Enplegurako lanbide-heziketarako informazio- eta orientazio-zerbitzua hobetzeko beharrezkoak diren estrategiak definitzea, hala badagokio, orientazio-arloan garatutako beste jarduera guztien analisia aintzat hartutako.

b) Autonomia eta sektore arteko mailako langileen lanbide-informazioa eta –orientazioaren eskaera aztertzea.

c) Aurreikusitako ekintzak egingo dituzten orientatzaileen profila eta eginkizunak definitzea.

d) Langileen informazio- eta orientazio-zerbitzua finkatzea, arreta berezia enplegua sortzeko lanpostuei emanez. Langileak proiektu bakoitzean eskainitako zerbitzuetara heltzea orokortzeko beharrezko neurriak abian jarriko dira. Proiektuan aurreikusitako lanbide-informazioko banakako

edo taldeko jardueretakoren batean ahalik eta pertsona gehienek esku hartuko dutela ziurtatzeko jarduketa-eremu ezberdinak definitu beharko dira. Langabeei orientazio trinkoa eman ahalko zaie, kalitatezko enplegua lor dezaten. Landunen orientazioa prestakuntza-arloan oinarrituko da eta, Kualifikazioen Sistema Nazionalaren garapenak uzten badu, beren kualifikazioa aitortu eta egiaztatzeko aukeretan.

Informazio- eta orientazio-bideak langileen arteko profil ezberdinetara eta beren beharren arabera egokitzea komeni da, eta une hauetan lanbide-heziketarako sarbide mugatua edo lan-egoera prekarioa duten talde berezien artean informazioa eta orientazioa zabaldu.

Banakako orientazioko hartzaileak identifikatu beharko dira, litezkeen lan- eta ziurtapen-alternatiba ezarri ahal izateko.

e) Orientazio-zerbitzuaren bitartez detektatutako eta egun ematen diren prestakuntza-planekin estali gabeko prestakuntza-beharrei erantzuteko bideratu behar diren prestakuntza-jarduketak zehaztea eta prestakuntza-ekintzak ezartzea.

Amaierako baliozkotze bat egiteko helburuarekin, gora egiten ari diren sektoreen beharrezkoak diren trebetasunak bereganatzera zuzendutako prestakuntza berezia eman ahal izango zaie, lana hobetu nahian dabiltzan 15 bat parte-hartzaileko taldeei.

f) Jarraipen-jarduerak definitzea, langileei emandako orientazioak egun duten egoeran izan dituen ondorioak egiaztatzeko. Ekintzaren emaitzak neurtzeko ezarritako adierazleak aztertu beharko dira, informazio eta orientazioa jaso duten langile-kopuruaren arabera.

g) Lortutako emaitzen amaierako txostenak prestatzea: fase honetan honako hauek barne egingo dira, alorrean adituak diren talde baten lanarekin: gauzatutako ekintzaren emaitzen azterketa, ekintzaren eraginaren eta eraginkortasunaren ebaluazio-txostenak eta horietatik ateratzen diren ondorioak. Halaber, dagozkion proposamenak eskainiko ditu, ekintzaren hedadura, ondorio biderkatzailea, zerbitzuaren eraginkortasuna eta horren iraunkortasuna bermatzeko.

2.2.– Proiektua deskribatzen duen memoria.

Honelako ekintzetarako diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria deskribatzaileak honako alderdi hauek barne hartu beharko ditu:

a) Proposamenaren justifikazioa: orientazio-zerbitzuaren testuingurua eta beharrak, deialdian adierazitako edukien eta baldintzen egokitzapena.

b) Helburu orokorrak eta bereziak.

c) Ekintzaren eremu hartzailearen deskribapena.

– Proiektuak garatzen diren Lurralde Historikoa eta autonomia-mailan izango duen eragina.

– Ekintzaren hartzaileen profilak: artatzea aurreikusitako erabiltzaileak, orientazioaren hartzaile izango iren langile- mota eta -kopurua eta proposamenaren justifikazioa.

– Eskabidean proposatzen den lanbide-informazio eta -orientazioko zerbitzu-mota ezberdin bakoitzerako, espero diren emaitzei buruzko informazioa eman beharko da, jasoko dituzten langile-kopuruen arabera.

d) Autonomia eta sektore arteko mailako langileen lanbide-informazio eta -orientazioaren eskaera aztertzeko metodoaren deskribapena.

e) Orientazioko jarduketen definizioa: langileen orientazioan erabili beharreko prozesu eta tresnen azalpen zehatza.

f) Langileei emandako orientazioak egun duten egoeran izan dituen ondorioak egiaztatzeko ezarri beharreko jarraipena deskribatzea.

g) Zerbitzuak izango dituen orientatzaileen kopurua eta profila.

h) Prestakuntza-ekintzen ereduzko esperientziak egitea aurreikusiz gero:

– Ereduzko esperientzia bakoitzean aurreikusitako guztizko parte-hartzaile kopurua.

– Prestakuntzaren aurreikusitako iraupen osoa, ordutan.

– Ordu teoriko eta praktikoen kopuruaren aurreikuspena.

– Tutoretza, ikasketa eta, hala badagokio, bertaratu bidezko ordu-kopuruen aurreikuspena.

– Ereduzko esperientzien eta prestakuntza-produktuen baliozkotze tekniko eta pedagogikorako adierazleen diseinua, eta baita, lortutako emaitzen eraginkortasuna neurtzea ahalbidetuko duten ebaluazio-adierazleak ere.

i) Ekintza prestakuntza-planei lotuta badago, erakunde eskatzaileak orientatutako langileak helarazi ahal dien edo dizkien prestakuntza-plana edo -plana zehaztu beharko ditu.

j) 2.1.g) atalean adierazten den ebaluaziorako erabiliko den metodologia.

2.3.– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak.

2.3.1.– Deialdian laguntzen jarraipenaren inguruan ezarritako aurreikuspen orokorrak baztertu gabe, proiektuaren gauzatzea ebaluatuko da garatzen den bitartean.

Helburu horrekin, diruz lagundutako jarduerak garatzen diren instalazioak bisitatu ahal izango ditu Hobetuzek, edo Fundazioaren egoitzan edo horretarako egokitutako beste lekuren batean egoki irizten dituen bilerak egiteko deialdia egingo dio onuradunari.

2.3.2.– Ekintza gauzatzeko fasean zehar, honako hauek entregatu beharko dira:

1.– Deialdiaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak.

2.– 17.3 artikuluak ezartzen duenaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera beteta.

Diruz lagundutako ekintzen exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin, gauzatze-aldian zehar.

3.– Egindako orientazio-ekintzen irismen eta eraginaren ebaluazioaren ondorio nagusien aurrerapena, ondorio horiek jarraipen-ekintza honetan proposatutako ekintzen planteamenduari eragin ahal diotenean.

4.– Orientazioak, berori jaso duten langileen lan-egoeran izan dituen ondorioak ezagutzea ahalbidetuko duen jarraipena egiteko adierazleak.

5.– Egoeraren bitarteko txostena, proiektuaren aurrerapenak deskribatuta.

6.– Orientazio-ekintzak burutzean egindako lanen funtzionamendu eta kalitatearen alderdi ezberdinei buruzko aldizkako informazioa:

– Proiektuan esku hartzen duten pertsonen izenen zerrenda (adibidez, adituak, informatzaile klabeak, etab.), kargua eta zein erakunde edo enpresatakoak diren adieraziz.

– Hala badagokio, bilera, lan-saio, eztabaida-talde edo antzekoen aktak edo txostenak, bertaratutakoen zerrenda, jorratutako gaiak eta zein leku eta egunetan izan diren adieraziz.

– Ereduzko esperientzien plangintzari buruzko txostena eta, hala badagokio, ematea aurreikusitako prestakuntza-edukiak eta aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua eta profila barne hartuta.

– Hala badagokio, proiektuaren barruan landutako materialaren kopia.

2.3.3.– Proiektua amaitzean ondorengo produktuak entregatu beharko dira:

1.– Gauzatzearen amaierako txostena, ekintzaren helburuak, garatutako estrategia, jarduketen deskribapena eta lortutako inpaktuak barne hartuz. Honako hauek aurkeztuko dira eranskin gisa:

– Garatutako orientazio-zerbitzuen funtzionamenduaren balorazioaren emaitzei buruzko txostena eta, hala badagokio, sektore arteko eta autonomia mailako langileen lanbide-informazio eta -orientazioaren eskariaren analisiari buruzkoa, aurreko deialdian diruz lagundutako babes-ekintzen proiektuen bitartez finantzatutako orientazio, sustapen eta hedapen jardueren garapenarekin lortutako informazioan oinarrituta.

– Orientazio-jarduera bakoitzaren emaitzen txostena.

– Ereduzko esperientziaren txosten berezia eta, hala badagokio, honako hauek barne hartuta: bere garapenaren memoria, ekintza hasi eta amaitu duten parte-hartzaileen zerrenda, baliozkotze-txostenak dagokion azterketarekin, uztea eragiten duten kausak, prestakuntza-sistemarako sarbide-kontrolak eta egindako ebaluazioa.

– Enplegurako prestakuntzari buruzko orientazio-zerbitzua hobetzeko beharrezkoak diren estrategien definizioa.

– Ondorioak eta proposamenak.

– Orientazio-zerbitzuaren erabiltzaileak erakartzeko sistemak.

– Hala badagokio, proiektuaren barruan egindako hedapen-materialaren kopia (triptikoak, kartelak, etab.).

– Hala badagokio, prestakuntza-ekimen ezberdinei buruzko informazioa hedatzeko posta edo beste bide batzuen bidezko igorpenen egiaztagiriak.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintzaren gauzatzean esku hartu duen taldearen identifikazioa barne hartu beharko ditu. Honako hauek aurkeztuko dira:

– Bi kopia paperean.

– Bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko.

2.– Proiektuan esku hartu duten pertsonen izenen zerrenda, eta tartean, adituak, informatzaile klabeak, etab. Gainera, horien kargua eta zein enpresa edo erakundetakoak diren adierazi beharko da.

3.– Excel-ekin bateragarria den datu-basea, orientazio-zerbitzuaren erabiltzaileen profilari buruzko datuekin eta, gutxienez ere, ondorengo adierazleak aintzat hartuta:

– Parte-hartzailearen identifikazioa: izen-abizenak.

– NAN.

– Harremanetarako telefonoa.

– Sexua.

– Adina.

– Ikasketa-maila.

– Arautu gabeko prestakuntza.

– Enpresaren izen soziala.

– Lantokiaren herria.

– Lan-esperientziako urteak.

– Zen orientazio-jardueratan esku hartu den.

– Zein sektoretik datorren.

– Zein sektoretarako orientazioa eman den.

– Hasierako okupazioa.

– Zein okupaziotarako orientazioa eman den.

– Zein prestakuntza-planari eta prestakuntza-ekintzari lortzen zaion.

4.– Hala badagokio, bilera, lan-saio, eztabaida-talde edo antzekoen aktak edo txostenak, bertaratutakoen zerrenda (eta sinadurak), jorratutako gaiak eta zein leku eta egunetan izan diren adieraziz.

5.– Egindako ekintzaren eraginkortasun eta efizientziaren azterketari buruzko informazioa eta orientazioa jaso duten langile- eta enpresa-kopuruen adierazleen bidez egindako txostena.

6.– Egindako jarduerak eta helburuak deskribatzen dituen «abstract» edo laburpen zehatza eta motza, 20 lerro ingurukoa.

7.– Egindako jardueren, espero ziren eta lortu diren emaitzen, ondorioen eta egindako jarduerei jarraitutasuna emateko proposamenen deskribapen laburra barne hartzen duen laburpena.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintza gauzatu duen taldearen identifikazioa barne hartu beharko ditu, eta gehienez ere 200 orrialdekoa izango da. Lau kopia entregatuko dira: bi paperean eta beste bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko. Hori dela-

eta, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berori garatzen duen gainerako araudian xedatutakoa bete beharko da.

Deialdiaren 17.7 artikulua betez, ekintzaren fase bakoitzaren garapena egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein dokumentazio izan eta entregatu beharko du erakunde onuradunak, Fundazioak eskatzen badio.

Produkturen bat Interneten badago eskuragarri, onuradunak Hobetuzi URL helbidea eta horietara, proiektua garatzen den bitartean, sartzeko behar diren gakoak eta jarraibideak eta ziurtapena jakinarazi beharko dizkio.

3.– BERRIKUNTZA-EKINTZAK PRESTAKUNTZA-PROZESUETAN, -PRODUKTUETAN ETA -TRESNETAN.

3.1.– Arau teknikoak.

Atal honetan, deialdiaren 5.3 artikuluan jasotako ekintzek izan behar dituzten ezaugarriak, eginkizunak eta horiek garatzeko jarduerak azaltzen dira.

Ekintza hauek prestatzeko ondorengo jarduerak izan beharko dira kontuan:

a) Diseinu eta plangintzako jarduerak.

Fase honetan, garatu edo egokituko diren eta ekintzen hartzaile izango diren enpresa eta langile-taldeen beharrei erantzuteko tresna edo erreminten egitura, erabilgarritasunak eta eginkizunak definituko dira.

Deialdiaren 5.3 artikuluko b), d) eta e) hizkietan jasotako prestakuntza-ekintzak emateko produktuen garapenaz aritzean, aukeratutako bitarteko teknikoen erabilera eta produktuak barne hartuko dituen edukiak justifikatuko dira. Era berean, hartan barne hartuko diren baliabide edo elementuak ezarriko dira, hala nola: soinua, argazkiak, eskemak, fitxak, grafikoak, bideoak, irudiak, animazioak, etab. Profesionaltasun-ziurtapenak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren babespean argitaratutako profesionaltasun-ziurtapenetan ezarritako prestakuntza-moduluak emateko produktuak badira, produktuak modulu bakar bat ematera izango du xede, moduluak prestakuntza-unitateetan zatituta daudenean, eta garatutako produktuak horiek guztiak, batera edo berezirik, ematea ahalbidetu beharko du.

b) Garapen- eta ekoizpen-jarduerak.

Fase honetan, tresnaren zati bakoitzari nahiz programazio informatikoari lotuko zaizkion beharrezko baliabideak eta materialak garatuko dira. Ondoren, elementu horiek guztiak amaierako produktuan barne hartuko dira, aurreikusitako biztanleria hartzaileari egokituta egon daitezen.

c) Baliozkotze-jarduerak.

Aurreko etapetan egin beharrezkotzat jotako azterketa eta probez gain, fase honetan tresnaren funtzionamendu eta eraginkortasunari buruzko azken baliozkotzea garatuko da.

Deialdi honetako 5.3 artikuluko b), d) eta e) hizkietan jasotako prestakuntza-ekintzak emateko produktuen garapenaz aritzean, ereduzko esperientzia bat egingo da eta horretan proposatutako prestakuntza-ekintza osoa emango zaio 8 eta 15 parte-hartzaile bitarteko talde txiki bati, talde horren profila amaierako produktuaren hartzaile izango den taldearekin bat datorrenean. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emandako langabeen parte hartzea baimenduko da, eta horien partaidetza prestakuntza-ekintza honetan, guztizkoaren % 20 eta % 40 bitartekoa izan beharko da.

Profesionaltasun-ziurtapenetan ezarritako prestakuntza-moduluak emateko produktuen kasuan, ereduzko esperientzia iraupen txikiagokoa izan ahalko da.

3.2.– Proiektua deskribatzen duen memoria.

Honelako ekintzetarako diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria deskribatzaileak honako alderdi hauek barne hartu beharko ditu:

3.2.1.– Lanpostuetan beharrezkoak diren gaitasunak identifikatzeko tresnak, berrikuntza-prozesuak aztertzeko metodologiak eta prestakuntzaren eragina neurtzeko tresnak (deialdiaren 5.3 artikuluko a), c) eta f) hizkietan arautuak) garatzeko:

a) Proposamenaren justifikazioa: tresnaren testuingurua eta beharra, hartzailea izango den talde zehatza eta horrek sektorean duen adierazgarritasuna aintzat hartuta.

b) Lortu beharreko helburu orokorrak eta bereziak.

c) Ekintza amaitutakoan, produktuaren eremu hartzailearen deskribapena.

– Sektore-arloa: EJSN kodeak.

– Kolektibo hartzailea.

– Proiektua zein Lurralde Historikotan garatuko den eta autonomia-mailan aplikatu ahal izango delako justifikazioa.

d) Zein formatu edo euskarritan egongo den eskuragarri.

e) Erremintaren edukiak, erabilgarritasunak eta eginkizunak.

f) Baliozkotze tekniko eta pedagogikoan erabiliko diren adierazleak.

g) Behin garatu ondoren, tresnaren aurreikusitako erabilgarritasuna adieraztea.

3.2.2.– Deialdiaren 5.3 artikuluko b) eta d) hizkietan araututako prestakuntza-produktuak garatzeko:

a) Proposamenaren justifikazioa: horren testuingurua eta erabilgarritasuna, proposatutako baliabide tekniko berria erabiltzeko aukeren analisia, eta deialdian zehaztutako eduki eta baldintzekiko egokitzapena.

b) Helburu orokorrak eta bereziak.

c) Ekintzaren eremu hartzailearen deskribapena:

– Sektore-arloa: ekonomia-jardueraren kodeak (EJSN)

– Prestakuntza-produktuaren kolektibo hartzailea.

– Lurralde-esparrua eta autonomia mailan aplikatu ahal izango delako justifikazioa.

d) Zein formatu edo euskarritan egongo den eskuragarri.

e) Edukiak, erabilgarritasunak eta eginkizunak.

f) Prestakuntza-produktuaren zehaztapenak:

– Prestakuntza-ekintzaren izena.

– Prestakuntza-ekintzaren iraupena.

– Osatzen duten unitate didaktikoak: kopurua eta titulua.

– Metodologia. Produktuan barne hartuko diren baliabideak edo elementuak: soinua, argazkiak, eskemak, fitxak, grafikoak, bideoak, irudiak, animazioak, etab.

– Zein lanbide-arlo eta lanposturi zuzenduta dagoen.

– Zein lanbide-gaitasuni eragingo zaien.

– Produktuak titulazio zehatz baterako prestatzen badu, titulazio hori identifikatu beharko da.

– Parte-hartzaileei aldez aurretik eskatutako prestakuntza-maila.

– Prestatzaile/tutore bakoitzeko parte-hartzaile kopuru egokia.

– Ikaskuntzaren jarraipen eta ebaluaziorako erabilitako sistema, barne hartzen dituen autoebaluazioko moduluak.

g) Prestakuntza-produktuaren baliozkotze tekniko eta pedagogikoan erabiliko diren adierazleak.

h) Ereduzko esperientzia:

– Ereduzko esperientzian esku hartuko duten parte-hartzaile kopurua.

– Ereduzko esperientziaren aurreikusitako iraupena:

• Prestakuntzak, guztira, zenbat ordu iraungo duela aurreikusten den.

• Ordu teoriko eta praktikoen kopuruaren aurreikuspena.

• Tutoretza, ikasketa eta, hala badagokio, bertaratu bidezko ordu-kopuruen aurreikuspena.

i) Produktua zein prestakuntza-planetan erabiltzea espero den eta dagozkion prestakuntza-ekintzan edo -ekintzetan izango direla aurreikusten den parte-hartzaile kopurua adieraztea.

3.2.3.– Profesionaltasun-ziurtapenak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren babespean argitaratutako profesionaltasun-ziurtapenetan ezarritako prestakuntza-moduluak emateko produktuak garatzeko (deialdiaren 5.3 artikuluko e letran arautuak):

a) Helburu orokorrak eta bereziak.

b) Produktua zein esparrutara zuzenduko den deskribatzea.

– Sektore-arloa: EJSN kodeak.

– Kolektibo hartzailea.

c) Zein formatu edo euskarritan egongo den eskuragarri.

d) Prestakuntza-produktuaren edukiak, erabilgarritasunak eta eginkizunak.

e) Prestakuntza-produktuaren zehaztapenak:

– Produktuaren hartzaile izango den moduluaren eta profesionaltasun-ziurtapenaren identifikazioa eta banatuta dagoen prestakuntza-unitateen izendapena.

– Prestakuntza-unitateen iraupena.

– Zein lanbide-arlo eta lanposturi zuzenduta dagoen.

– Zein lanbide-gaitasuni eragingo zaien.

f) Baliozkotze tekniko eta pedagogikoan erabiliko diren adierazleak.

g) Ereduzko esperientzia:

– Ereduzko esperientzian esku hartuko duten parte-hartzaile kopurua.

– Ereduzko esperientziaren aurreikusitako iraupena:

• Eman beharreko edukien zerrenda.

• Prestakuntzak, guztira, zenbat ordu iraungo duela aurreikusten den.

• Ordu teoriko eta praktikoen kopuruaren aurreikuspena.

• Bertaratu bidezko eta teleprestakuntzako eta, hala badagokio, tutoretza eta ikasteko eta, hala badagokio, bertaratu bidezko ordu-kopuruen aurreikuspena.

h) Produktua zein prestakuntza-planetan erabiltzea espero den eta dagozkion prestakuntza-ekintzan edo -ekintzetan izango direla aurreikusten den parte-hartzaile kopurua adieraztea.

3.3.– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak.

3.3.1.– Deialdian laguntzen jarraipenaren inguruan ezarritako aurreikuspen orokorrak baztertu gabe, proiektuaren gauzatzea ebaluatuko da garatzen den bitartean.

Helburu horrekin, diruz lagundutako jarduerak garaleku duten instalazioak bisitatu ahal izango ditu Hobetuzek, edo Fundazioaren egoitzan edo horretarako egokitutako beste lekuren batean egoki irizten dituen bilerak egiteko deialdia egingo dio onuradunari.

3.3.2.– Ekintza egiten den fasean zehar, gutxienez ere, ondorengo dokumentazioa entregatu beharko zaio Hobetuzi:

1.– Deialdiaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak.

2.– 17.3 artikuluak ezartzen duenaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera beteta.

Diruz lagundutako ekintzen exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin, gauzatze-aldian zehar.

3.– Garapen- eta ekoizpen-fasea hasi baino lehen, ondorengoak bidaliko zaizkio Hobetuzi baliozkotzat jo ditzan:

a) Produktuaren diseinuari buruzko txostena, haren egitura, erabilgarritasunak, eginkizunak eta barne hartuko diren baliabideak edo elementuak zehaztuta.

b) Deialdiaren 5.3 artikuluko b), d) eta e) hizkietan jasotako prestakuntza-ekintzak emateko produktuak garatu behar direnean, gainera, produktuaren gidoia aurkeztu beharko da, garatzen hasi baino lehen eduki-unitateak eta tratamendu pedagogikoa zehaztuta.

4.– Baliozkotzeko fasea hasi baino lehen, baliozkotze-adierazleak (erabiliko diren irizpideak eta aldagaiak) bidali beharko zaizkio Hobetuzi balora ditzan.

5.– Ereduzko esperientzia hasi baino lehen, Hobetuzek erakunde onuradunaren esku nahiko denboraz jarriko duen fitxa behar bezala beteta bidali beharko da, esperientzian esku hartuko duten parte-hartzaileei buruzko informazioarekin, eta egiteko aurreikusitako fitxak.

3.3.3.– Proiektua amaitzean ondorengo produktuak entregatu beharko dira:

1.– Konpromisoan ezarritako formatuan garatutako produktuaren bina kopia.

On-line modalitatean emateko prestakuntza-produktuen kasuan, artxibo bat edo gehiago entregatu beharko dira, eta horietan prestakuntza-baliabideak eta barne hartutako ebaluazioak bildu beharko dira, SCORM (Shareable Content Object Reference Model) estandarizazio-ereduan ezarritako arauen eta LOM (Learning Object Metadate) etiketatze-arauen arabera, oihartzun handiagoa eta plataforma ezberdinetan erabili ahal izango dela bermatzeko. Halaber, 1.27 edo 1.28 bertsioetako Test Suite aplikazioarekiko SCORM bateragarritasuna egiaztatu beharko da, test horren emaitzaren kopia gehituz.

2.– Egindako produktua aurreikusitako metodologiaren arabera garatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (bileren aktak, baliozkotze-txostenak...).

3.– Tresnaren ezaugarri teknikoen deskribapena jasotzen duen fitxa. Bi kopia aurkeztuko dira Adobe Acrobat (PD) formatuan. Fitxa honen bitartez, beharrezko gutxieneko baldintza teknikoak, izendapena, edukiak, nabigatzeko elementuak eta funtzionamendua ezagutzea ahalbidetuko die, tresna erabiltzeko interesa izan dezaketen pertsona eta erakundeei. Bi kopia aurkeztuko dira (CD-ROM banatan) Interneten hedatzeko formatuan eta tamaina egokiarekin.

4.– Erabilera eta nabigazioko gida.

5.– On-line modalitatean emango diren prestakuntza-produktuen kasuan, produktuaren funtzionamenduaren eta erabilgarritasunen bideoko bertsioa entregatu beharko da flash formatuan (.flv). Bideo horrek minutu inguru iraungo du, lokuzioa barne hartuko du, 320 x 240 neurriak izango ditu eta ezingo da 5 mega baino astunagoa izan. Gainera, produktuaren oinarrizko ezaugarriak erakutsiko ditu, erabiltzailearen arreta erakartzea ahalbidetuko duen pedagogia grafikoko metodologiarekin. Gutxienez honako hauek barne hartu beharko ditu: aurkezpena, unitate didaktiko bat eta ebaluazio-mekanismoa. Gainera, bideo beraren 600 x 450ko beste bertsio bat bidaliko da.

6.– On-line bidez emango diren prestakuntza-produktuen kasuan, garatutako produktuen iturri-kodeak entregatu beharko dira.

7.– Baliozkotze-fasearen memoria (ekipo teknikoak egindako testak) eta egiaztagiriak.

8.– Garatutako tresnak erabiltzeko plana.

9.– Deialdiaren 5.3 artikuluko b), d) eta e) hizkietan jasotako prestakuntza-ekintzak emateko produktuak garatzen direnean, honako hauek jaso beharko dira: ereduzko esperientziaren txostena, garapenaren memoria, parte-hartzaileen zerrenda, entregatutako materiala, prestakuntza-sistemara sartzeko kontrolak (zeinetan parte-hartzaile bakoitzaren honako hauek zehaztu beharko diren: sistemara zenbatetan sartu den, konexio-denbora partziala eta guztia), banakako ikasketa-denbora sistematik kanpo, egindako tutoretzak (tutoretza-mota, erabilitako denbora), egindako dinamizazio-jarduerak eta garatutako ebaluazioen emaitzak.

Deialdiaren 17.7 artikulua betez, ekintzaren fase bakoitzaren garapena egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein dokumentazio izan eta entregatu beharko du erakunde onuradunak, Fundazioak eskatzen badio.

Produkturen bat Interneten badago eskuragarri, onuradunak Hobetuzi URL helbidea eta horietara, proiektua garatzen den bitartean, sartzeko behar diren gakoak eta jarraibideak eta ziurtapena jakinarazi beharko dizkio.

4.– ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETAREN EREDU BERRIAREN ESPARRUAN, PRESTAKUNTZA, KUALIFIKAZIO ETA ENPRESA GARAPENEKO PROPOSAMENEN INGURUAN HAUSNARTU ETA HORIEK AZTERTU, ESPERIENTZIAK ELKARTRUKATU ETA PROPOSAMENAK LANTZEKO FOROAK SORTZEA.

4.1.– Arau teknikoak.

Atal honetan, deialdiaren 5.4 artikuluan jasotako ekintzek izan behar dituzten ezaugarriak azaltzen dira. Aipatu artikuluan zehazten da foro bakoitzak hizpide izan behar duen gaia.

4.1.1.– Mota honetan barne hartutako ekintzek ondorengo alderdiak izan beharko dituzte aintzat, jorratu beharreko gaiaren arabera:

1.– Aldaketak ekoizpen-ereduan eta horren eragina langileen trebakuntza-beharretan.

Foro honen helburuak izango dira enplegurako lanbide-heziketaren eginkizuna aztertzea eta honako hauetan proposamenak prestatzea: ekoizpen-ereduko aldaketetan, enpleguaren bilakaeran eta gainbeheran dauden sektore ezberdinetako kualifikazioetan eta enplegua sortzen duten sektoreetan. Bereziki, ekoizpen-ereduaren bilakaeraren aurrean enplegua galtzen ari diren sektore edo ekonomia-jardueretako hasierako egoera eta langileak gora egiten ari diren ekoizpen-sektoreetarako mugikortasun-aukerak aztertu beharko dira. Foroa osatzeko, Euskadiko ekoizpen-ereduaren egituraketan dauden joerak aztertu eta Europako beste herrialdeen egoerarekin alderatuko da.

2.– Trebakuntza-behar berriak eta ikasteko metodo berriak. 2.0 weba enplegurako lanbide-heziketan aplikatzea.

Foro honen hausnarketa-gaia 2.0 weba bezalako prestakuntza-mota berrien joerak izango dira, horren bitartez, profesionalak bere lanposturako behar dituen gaitasunak banaka eta beharra sortzen den eta hautematen den unean bereganatu ahal baitira. Web honek erabiltzaileei informazioa erraz elkartrukatu, prozesatu eta eskualdatzea ahalbidetzen dienez, tresna baliagarria izan daiteke prestakuntzan.

Foroak, informazio eta esperientziak elkartrukatzea eta enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren eraginkortasuna areagotzearen alde egingo duten proposamenak prestatzea bideratzeko eremuak sortzea erraztuko du.

3.– Enpresen gizarte-erantzukizuna eta enplegurako lanbide-heziketa.

Foro honen helburua nagusia da, egun enpresetan egin ari diren enpresa-erantzukizun sozialeko ekintza ezberdinei buruz eztabaidatu eta hausnartzea, eta enplegurako prestakuntzan duen eragina ezagutzea. Beraz, beren jarduketa-estrategietan gizarte-erantzukizuneko irizpideak jarraitzen dituzten enpresetan eta, ondorioz, beren langileengan nola eragiten duen eta horren inguruko prestakuntza-ekintzarik egin behar den ala ez aztertuko da. Ekimen horrek barne hartzen dituen printzipioen arabera arautzen diren neurriak eta ekintzak enpresa batek aplikatzeak zuzenean zein alderdiri eragiten dien hausnartuko da.

4.– Enplegurako lanbide-heziketaren estrategiak eta alternatibak eta gazteak lan-munduratzea.

Foro honen hausnarketa-gaiak izango da enplegurako lanbide-heziketa eta, eskola utzi ondoren edota eskola-porrotaren ondoren lan-merkatuan sartzen diren langileen trebakuntzan nola laguntzen duen, beren enplegagarritasuna eta garapen pertsonala garatzeko neurriak ezarriz. Foroak, informazio eta esperientziak elkartrukatzea eta prestakuntzaren azpi-sistemaren eraginkortasuna areagotzearen alde egingo duten proposamenak prestatzea bideratzeko eremuak sortzea erraztuko du.

4.1.2.– Honelako ekintzen garapenak ondorengo jarduerak barne hartuko ditu:

a) Jardueraren diseinua eta plangintza egitea. Proiektuan zehar egin beharreko jarduera ezberdinen lan-plana egingo da, kronograma batean jarduera bakoitza noiz egingo den eta bere garapenean esku hartuko duten pertsonak edota erakundeak zehaztuz. Gainera, tratatzerakoan kontuan izango den ikuspegia eta lortu nahi diren helburuak deskribatuko dira. Horretarako, Hobetuzen laguntza izango dute.

b) Parte hartuko duten erakundeak eta adituak. Foroa sortzeak, etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza antolatu, diseinatu eta gauzatzeari lotutako eragile anitzeko erakunde eta adituen taldea eratzea eskatzen du. Adibide gisa, ondorengoak adierazten dira:

– Enpresa-elkarteak.

– Sindikatu-elkarteak.

– Prestakuntza-zentroak.

– Aholkularitza-enpresak.

– Unibertsitateak.

– Ikerketa-institutuak.

– Prestakuntzan adituak.

– Prestakuntza-kudeatzaileak.

– Prestatzaileak.

Deialdiaren 5.4 artikuluan ezartzen da foroan zenbat eragilek esku hartuko duten. Salbuespen gisa, parte-hartzaile kopurua areago daiteke, foroaren gaiek gomendatzen dutenean. Gaien tratamenduan ikuspegi eta ikusmolde aniztasunaren eta eragile anitzeko izaeraren alde egiteko, foroan, gutxienez ere, 6 erakunde ezberdinek esku hartu beharko dute, eta erakunde bakoitzetik ezingo dute 2 adituk baino gehiago parte hartu. Parte-hartzaile bakoitzaren curriculum laburra aurkeztuko da, datu pertsonalak eta lanbide-profila definitzen duten elementu nagusiak adieraziz.

c) Jarduera zuzendu eta koordinatzea. Foroaren izaera iraunkorraren ondorioz, lan-programa abiarazi, dinamizatu eta jarraitzeaz arduratzen den zuzendaritza eta koordinazio teknikoak izan beharko dira, aurreikusitako jarduerak, parte-hartzaile ezberdinen arteko informazio-trukeak eta tarteko produktuak entregatzen direla bermatzeko.

d) Lan-metodologia eta jardueraren garapena. Dagokigun kasu honetan, lan-metodologiak honako hauek barne hartzen ditu: foroan parte hartzeko dinamika eta parte-hartzaileen artean informazioa eta iritziak elkartrukatzeko moduak, zein lortzen diren emaitzei eman nahi zaien tratamendua.

Egin beharreko jardueren artean bertaratu bidezko bilerak egitea barne hartu beharko da, eta horietan, dagokion gaiari buruzko eztabaida-dinamikak garatu beharko dituzte foroan esku hartuko duten pertsonek.

Halaber, sarbidea Hobetuzen web orrian izango duen foro birtuala abiaraztea ere aztertu beharko da, eta horietan, hala foroko parte-hartzaileek, nola interesa duten bestelako erakundeek eta pertsonek, beren kontsultak eta iritziak erantsi eta ekintzaren garapenean sortzen diren aurrerapenei buruzko informazioa eguneratuta edukiko da.

e) Aditu laguntzaileak. Aukeratutako gaien maila edo alderdi ezberdinetan sakontzeko, forokoak ez diren aditu eta espezialisten laguntza eduki ahal izango da, zein saio edo unetan esku hartuko duten adieraziz.

f) Amaierako txostena. Jarduera osoaren balantzea egiteko, ondorengoak barne hartuko dituen amaierako txostena egin beharko da: garatutako jardueraren alderdi garrantzitsuenak, ondorio nagusiak eta egoki irizten diren proposamenak, eta baita, aurreikusitako hedapen- eta eskualdatze-sistema ere.

g) Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartuz gero, hurrengo atalean adierazitako jarraibideak izango dira kontuan.

4.1.3.– Jardunaldi tekniko bat barne hartuz gero, ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

Kasu guztietan, proiektuaren ikuspegi eta ikusmolde guztietatik hartutako alderdien inguruko eztabaida sustatuko dituzten lan-taldeak edo mahai-inguruak barne hartuko dira.

Honako profilekoak izango dira jardunaldi teknikoetara bertaratzen direnak: besteak beste, enpresa- edo sindikatu-elkarteetako, herri-administrazioetako, unibertsitateetako kideak, ahalik eta aniztasun eta ordezkaritzarik handiena izateko ahaleginak eginez. Ikerketa-lanean informazioarekin esku hartu duten pertsonak (elkarrizketatuak, eztabaida-taldeetako parte-hartzaileak, adituak, etab.) gonbidatuko dira.

Era berean, ondorengo faseak osatu beharko dituzte:

a) Plangintzaren fasea.

Fase honetan, hainbat prestakuntza- eta antolaketa-lan egin beharko dira, egiten diren hedapeneko jardunaldi teknikoen kalitatea bermatzearen alde sendo egingo dutenak, eta ondorengoak izango dira:

– Jardunaldi teknikoaren helburu bereziak ezartzea (proiektuaren emaitzen araberakoa izango da).

– Jardunaldi teknikoa egiteari datxezkion jarduera bakoitza koordinatu eta gauzatzeaz arduratutako pertsonak eta baliabide materialak identifikatzea.

– Metodoaren eta denboraren plangintza egitea, nahikoa denboraz litezkeen txostengileak izanda eta zergatik aukeratu diren justifikatuta.

b) Jardunaldien euren fasea.

Jardunaldi teknikoaren hasieran, ondorengoei buruzko informazioa zehaztuko da: proiektuaren garapenean esku hartu duten erakundeei, helburuei, hartzaile diren kolektiboei, garatutako metodologiari eta aurkezten den dokumentuaren egiturari buruzkoa.

Azalpen teknikoak, gutxienez ere, ondorengo alderdiak barne hartu beharko ditu: proiektuaren funtsa eta beharra, lotutako lanak, dagoenaren aldean dituen abantailak eta emaitzen azalpena edo amaierako produktuen deskribapena. Halaber, bertaratutakoei emandako dokumentazioan jasoko da informazio hori.

Jardunaldiak, aztertu beharreko gaiari buruzko txostengileen esku-hartze garrantzitsuak eta eztabaida-teknikak, lan-taldeak edo mahai-inguruak barne hartuko ditu.

Jardunaldi teknikoen ebaluazio-galdetegiak proiektuari buruzko proposamen eta iradokizunei buruzko atala izango du. Proposamen horiek lan-taldeen eta mahai-ingurukoetako ekarpenekin batera txertatuko dira jardunaldien ondorioen dokumentuan. Dokumentu hori amaierako produktuaren zati izango da, eta balio erantsia emango die, honelako ekintzen izaera berritzailea eta kalitatea barne hartuz.

4.2.– Proiektua deskribatzen duen memoria.

Honelako ekintzetarako diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria deskribatzaileak honako alderdi hauek barne hartu beharko ditu:

a) Proposamenaren justifikazioa: gaiak, testuingurua eta erabilgarritasuna, eta deialdian zehaztutako eduki eta baldintzekiko egokitzapena.

b) Helburu orokorrak eta bereziak.

c) Foroan esku hartuko dutenen profilak.

d) Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

e) Lan-programa, ondorengo hauek adieraziz: garatu beharreko jarduerak, horiek zein egun eta lekutan egingo diren eta, hala badagokio, horietan esku hartuko duten aditu laguntzaileen profila.

f) Funtzionamenduaren metodologia, ondorengo hauek deskribatuta: foroan esku hartu dutenen egitekoa eta ekarpena, bilera eta lan-saien dinamika eta kideen arteko komunikazio-prozesua eta informazio-trukea.

g) Ondorioak eta proposamenak hedatu eta eskualdatzeko sistema.

h) Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartuz gero, horren inguruko konpromisoa jaso beharko da eskabidean.

Hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartzen duten proiektuek, horren inguruko konpromisoa jaso beharko dute eskabidean. Gauzatzearen fasean, garapenaren azken baldintzak zehaztuko dira, arau teknikoetan adierazten denaren arabera (aurreko 4.1 atala).

4.3.– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak.

4.3.1.– Deialdian laguntzen jarraipenaren inguruan ezarritako aurreikuspen orokorrak baztertu gabe, proiektuaren gauzatzea ebaluatuko da garatzen den bitartean.

Helburu horrekin, diruz lagundutako jarduerak garaleku duten instalazioak bisitatu ahal izango ditu Hobetuzek, edo Hobetuzen egoitzan edo horretarako egokitutako beste lekuren batean egoki irizten dituen bilerak egiteko deialdia egingo dio onuradunari.

4.3.2.– Ekintza egiten den fasean zehar, gutxienez ere, ondorengo dokumentazioa entregatu beharko zaio Hobetuzi:

1.– Deialdiaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak. Era berean, foroko partaide guztiak identifikatu beharko dira, dagokien profila zehaztuz.

2.– 17.3 artikuluak ezartzen duenaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera beteta.

Diruz lagundutako ekintzen exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin, gauzatze-aldian zehar.

3.– Informazio trukatzeko modalitate ezberdinetan aurreikusitako ekitaldiak burutu baino lehen, bakoitzaren behin betiko programa entregatu beharko da.

4.– Bilerak, saioak edo ekitaldiak amaitzean, bakoitzaren funtsezko elementuei buruzko aktak edo dokumentazioa aurkeztu beharko dira, jorratutako gaiei buruz ateratako ondorioak barne.

5.– Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoak barne hartuz gero, dokumentazio tekniko honetako 4.3.4 atalean adierazitako produktuak ere aurkeztu beharko dira.

4.3.3.– Jarduera amaitzean ondorengo produktuak entregatu beharko dira:

1.– Proposatutako helburuak, garatutako jarduera eta lortutako emaitzak, eta ondorio eta proposamenik garrantzitsuenak azalduko dituen txostena.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintza gauzatu duen taldearen, adituen eta foroko kideen identifikazioa barne hartu beharko ditu, eta gehienez ere 200 orrialdekoa izango da. Lau kopia entregatuko dira: bi paperean eta beste bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko. Hori dela-eta, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berori garatzen duen gainerako araudian xedatutakoa bete beharko da.

2.– Egindako jarduerak eta helburuak deskribatzen dituen «abstract» edo laburpen zehatza eta motza, 20 lerro ingurukoa.

4.3.4.– Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoak barne hartuz gero, ondorengoak ere aurkeztu beharko dira:

Ekintzaren gauzatze-aldian, «Hedapenerako jardunaldi teknikoen plangintzari buruzko txostena» bidali beharko zaio Hobetuzi, gutxienez ere, jardunaldiak hasi baino bi hilabete lehenago. Txostenean honako hauek jasoko dira:

– Jardunaldi teknikoaren helburu bereziak.

– Metodologiaren eta denboraren plangintza.

– Jarduerak koordinatu eta gauzatzeaz arduratutako pertsonak.

– Aurreikusitako txostengileen kopurua eta profila eta zergatik aukeratu diren.

– Bertaratutakoen kopurua eta profila.

– Zein egunetan egingo den.

– Non egingo den.

– Garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta instalazioak.

– Jardunaldirako aurreikusitako iraupena.

Jardunaldiak amaitutakoan honako hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Ekintzaren memoria, honako hauek barne hartuta: jorratutako gaiak, garatutako ponentziak eta zein tokitan, egunetan eta ordutegitan egin den.

2.– Jardunaldi teknikoaren ondorioak biltzen dituen dokumentuak, jardunaldian zehar izandako ekarpen interesgarriak barne hartuta (lan-taldeetan, mahai-inguruetan, ebaluazio-galdetegietan, etab.).

3.– Hedatzeko edo aurkezteko erabilitako materialaren kopia. Triptikoak, gonbidapenak, prentsako iragarkiak, etab.

4.– Bertaratutakoei emandako materialaren kopia.

5.– Bertaratutakoen identifikazioa, sinaduren kontrola eta ondorengo datuak barne hartuta:

– Izen-abizenak.

– NAN.

– Ordezkatzen duten enpresa edo erakundearen izena.

– Aurreko atalean adierazitako enpresa edo erakundean garatutako kargua edo lanpostua.

– Harremanetarako telefonoa.

– Sinadura.

6.– Hala badagokio, prentsa-dosierra.

Deialdiaren 17.7 artikulua betez, ekintzaren fase bakoitzaren garapena egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein dokumentazio izan eta entregatu beharko du erakunde onuradunak, Fundazioak eskatzen badio.

Produkturen bat Interneten badago eskuragarri, onuradunak Hobetuzi URL helbidea eta horietara, proiektua garatzen den bitartean, sartzeko behar diren gakoak eta jarraibideak eta ziurtapena jakinarazi beharko dizkio.

5.– ZEHARKAKO ETA SEKTORE ANITZEKO AZTERLANAK.

5.1.– Arau teknikoak.

Arau hauetan, deialdi honen 5.5 artikuluan araututako ekintzak garatzeko metodologiak eta faseak jaso dira.

Ekintza hauen helburua da, autonomia-mailako zeharkako eta sektore anitzeko arlo eta gaiei buruzko ikerketa- eta azterketa-ekintzak garatzea, eta enplegurako lanbide-heziketarako interesagarriak eta garrantzitsuak izanda, horren inguruko ezagutza zehatzagoa eta egun dagoena baino sakonagoa izateko beharra planteatzen dute.

5.1.1.– Epigrafe honetan diruz lagundutako ekintzek, ondorengo adierazten diren faseak eta metodologia-alderdiak izan beharko dituzte aintzat:

a) Diseinuaren fasea.

Fase honetan azterlanaren helburua, informazio-iturriak, lehen nahiz bigarren mailakoak, azterketa-irizpideak eta informazioa biltzeko metodologiak eta tresnak mugatu, erakunde- edo dokumentu-iturrien bidezko azterketa egingo da.

b) Informazio biltzeko fasea.

Fase honetan erakunde onuradunak aukeratutako teknika kuantitatibo edota kualitatiboak aplikatuko dira. Teknika horiek, edozein kasutan, azterlanaren helburuen araberakoa izan beharko dute.

c) Analisi-fasea.

Ikerlanean lortutako emaitzen analisia eta dagozkion txostenak egingo da, ezarritako irizpideen arabera.

d) Amaierako fasea.

Fase honek, analisi-fasean lortutako emaitzak baloratzeko ondorioak lantzea barne hartzen du.

e) Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartuz gero, hurrengo atalean adierazitako jarraibideak izango dira kontuan.

5.1.2.– Jardunaldi tekniko bat barne hartuz gero, ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

Kasu guztietan, proiektuaren ikuspegi eta ikusmolde guztietatik hartutako alderdien inguruko eztabaida sustatuko dituzten lan-taldeak edo mahai-inguruak barne hartuko dira.

Honako profilekoak izango dira jardunaldi teknikoetara bertaratzen direnak: besteak beste, enpresa- edo sindikatu-elkarteetako, herri-administrazioetako, unibertsitateetako kideak, ahalik eta aniztasun eta ordezkaritzarik handiena izateko ahaleginak eginez. Ikerketa-lanean informazioarekin esku hartu duten pertsonak (elkarrizketatuak, eztabaida-taldeetako parte-hartzaileak, adituak, etab.) gonbidatuko dira.

Era berean, ondorengo faseak osatu beharko dituzte:

a) Plangintzaren fasea.

Fase honetan, hainbat prestakuntza- eta antolaketa-lan egin beharko dira, egiten diren hedapeneko jardunaldi teknikoen kalitatea bermatzearen alde sendo egingo dutenak, eta ondorengoak izango dira:

– Jardunaldi teknikoaren helburu bereziak ezartzea (proiektuaren emaitzen araberakoa izango da).

– Jardunaldi teknikoa egiteari datxezkion jarduera bakoitza koordinatu eta gauzatzeaz arduratutako pertsonak eta baliabide materialak identifikatzea.

– Metodoaren eta denboraren plangintza egitea, nahikoa denboraz litezkeen txostengileak izanda eta zergatik aukeratu diren justifikatuta.

b) Jardunaldien euren fasea.

Jardunaldi teknikoaren hasieran, ondorengoei buruzko informazioa zehaztuko da: proiektuaren garapenean esku hartu duten erakundeei, helburuei, hartzaile diren kolektiboei, garatutako metodologiari eta aurkezten den dokumentuaren egiturari buruzkoa.

Azalpen teknikoak, gutxienez ere, ondorengo alderdiak barne hartu beharko ditu: proiektuaren funtsa eta beharra, lotutako lanak, dagoenaren aldean dituen abantailak eta emaitzen azalpena edo amaierako produktuen deskribapena. Halaber, bertaratutakoei emandako dokumentazioan jasoko da informazio hori.

Jardunaldiak, aztertu beharreko gaiari buruzko txostengileen esku-hartze garrantzitsuak eta eztabaida-teknikak, lan-taldeak edo mahai-inguruak barne hartuko ditu.

Jardunaldi teknikoen ebaluazio-galdetegiak proiektuari buruzko proposamen eta iradokizunei buruzko atala izango du. Proposamen horiek lan-taldeen eta mahai-ingurukoetako ekarpenekin batera txertatuko dira jardunaldien ondorioen dokumentuan. Dokumentu hori amaierako produktuaren zati izango da, eta balio erantsia emango die, honelako ekintzen izaera berritzailea eta kalitatea barne hartuz.

5.2.– Proiektua deskribatzen duen memoria.

Atal honetan barne hartutako ekintzak deskribatzen dituen Memoriak, ondorengo alderdiak barne hartu beharko ditu:

a) Proiektuaren plangintza eta garapenaren deskribapena.

b) Helburu orokorrak eta bereziak.

c) Jorratu beharreko edukiak eta gaiak.

d) Ikerketaren sektore anitzeko arloaren deskribapena.

e) Kontsultatu beharreko dokumentu- eta erakunde-iturriak eta azterlanaren helburuari buruz lortu nahi den informazioa.

f) Azterlanaren xede den unibertsoa: laginketa-esparrua lortzeko erabiltzea aurreikusten diren iturrien justifikazioa eta, teknika kuantitatiboak erabiltzea aurreikusiz gero, deskribapena.

g) Erakunde eskatzaileak, bere planteamendu metodologikoaren arabera, erabiltzea aurreikusten diren datuak biltzeko teknikak erabaki eta horien inguruko ondorengo informazioa eman beharko du:

– Inkestak:

• Itaundu beharreko kolektiboen (langileak, enpresak...) deskribapena eta justifikazioa.

• Datuak biltzeko prozesuaren deskribapena eta justifikazioa: galdetegi-mota (pertsonala, telefono bidezkoa, posta bidezkoa edo posta elektronikoaren bidezkoa).

• Laginak hautatzeko irizpideak (intereseko biztanleriak edo taldeak, laginketa-mota, estratifikazio-aldagai nagusien deskribapena) eta horien justifikazioa.

• Laginen tamaina.

• Errore-marjina eta fidagarritasun-maila.

• Teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

– Behaketa:

• Egin beharreko behaketa-kopurua eta justifikazioa.

• Behaketa-motaren justifikazioa (parte-hartzailea, parte-hartzaile ez dena, informatzaile klabeaz lagundutako begiralea).

• Behaketaren helburuak, teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

– Elkarrizketa irekiak:

• Elkarrizketa-kopurua.

• Elkarrizketa erantzun dutenen profila.

• Elkarrizketa erantzun dutenen kopurua eta profila hautatzeko irizpideak eta justifikazioa.

• Teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

– Eztabaida-taldeak:

• Bilera-kopurua.

• Kideen kopurua eta profila.

• Hautaketa-irizpideak eta talde bakoitzean esku hartuko duten kideen kopuru eta profilaren justifikazioa.

• Teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

– Delphi metodoa:

• Parte-hartzaile kopurua.

• Zirkulazio-kopurua (adituen taldeari aurkezten zaizkion elkarren segidako galdetegiak).

• Parte-hartzaileen profila eta helburuen araberako justifikazioa.

• Teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

– Gizarte-ikerketako beste teknika batzuk, aplikatuko den prozeduraren deskribapena, teknika honekin lortu nahi den informazioa eta ikerketaren helburuetarako zergatik erabiliko den justifikatzea.

h) Analisiaren metodologiaren deskribapena, azterlanaren emaitzak fase dokumental eta enpirikoan jasotako datuekin koherenteak direla ziurtatuko duten teknikak zehaztuz.

i) Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoa egitea barne hartuz gero, horren inguruko konpromisoa jaso beharko da eskabidean. Gauzatzearen fasean, garapenaren azken baldintzak zehaztuko dira, arau teknikoetan adierazten denaren arabera (aurreko 5.1 atala).

5.3.– Jarraipen-jarduerak eta aurkeztu beharreko produktuak.

5.3.1.– Deialdian laguntzen jarraipenaren inguruan ezarritako aurreikuspen orokorrak baztertu gabe, proiektuaren gauzatzea ebaluatuko da garatzen den bitartean.

Helburu horrekin, diruz lagundutako jarduerak garatzen diren instalazioak bisitatu ahal izango ditu Hobetuzek, edo Hobetuzen egoitzan edo horretarako egokitutako beste lekuren batean egoki irizten dituen bilerak egiteko deialdia egingo dio onuradunari.

5.3.2.– Ekintza gauzatzeko fasean zehar, honako hauek entregatu beharko dira:

1.– Deialdiaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta ondorengo hilabeteko epearen buruan, gehienez ere, ekintza hori egiten ari dela, jardueren egutegi eguneratua eta aplikatu beharreko metodologia-prozesuaren berri emango dio Hobetuzi erakunde onuradunak.

2.– 17.3 artikuluak ezartzen duenaren arabera, emakidaren Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epearen buruan, ekintza deskribatzen duen fitxa emango dio erakunde onuradunak Hobetuzi, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera beteta.

Diruz lagundutako ekintzen exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratua bidali beharko du erakunde onuradunak, bi hilean behin, gauzatze-aldian zehar.

3.– Kontsultatutako estatistika- eta dokumentu-iturrien zerrenda, horietako bakoitzetik zein informazio garrantzitsu atera den adieraziz.

4.– Datu-bilketaren plangintzako laukia, erabiltzea aurreikusten den ikerketa-teknika bakoitzean (eta tartean, dokumentalak, kuantitatiboak edota kualitatiboak) lortuko den informazio zehatza adieraziz.

5.– Laginak definitu eta aukeratzeko prozeduraren deskribapena.

6.– Teknika kualitatiboetan esku hartzen duten pertsonen profilak (inkestak erantzun dutenak, taldeetako parte-hartzaileak, adituak).

7.– Azterlanean erabilitako tresna eta euskarri guztien (inkestak, galdetegiak, elkarrizketa-gidoiak, eztabaida-taldeen gidoia edo antzekoak) kopia paperean eta euskarri informatikoan, diseinatu bezain pronto eta aplikatu baino lehen. Hobetuzek egoki irizten dituen aldaketak egin ahal izango ditu hamabost eguneko epean.

8.– Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoak barne hartuz gero, dokumentazio tekniko honetako 5.3.4 atalean adierazitako produktuak ere aurkeztu beharko dira.

5.3.3.– Proiektua amaitzean ondorengo produktuak entregatu beharko dira:

1.– Azterlanean erabilitako metodologiaren dokumentua, honako hauek barne hartuta:

a) Fitxa teknikoa: datuak biltzeko metodologiak eta teknikak, eta teknika kualitatiboak erabili badira, erreferentziazko unibertsoen definizioa eta kuantifikazioa, laginen tamaina, laginketa-metodoa eta elkarrizketatu beharreko unitateen aukeratzea, fidagarritasun-maila; eta datuak aztertzeko metodologia.

b) Landa-lanaren inguruko informazioa, erabilitako tekniken arabera:

Kuantitatiboa: laginketa-puntuak; informazioa biltzeko egunak; gainbegiratzeko metodoa eta portzentajea; eta galdetegien ereduak.

Kualitatiboa: eztabaida-taldeen, aditu-taldeen eta elkarrizketa irekien bilerak zein egun eta tokitan egin diren, teknika horietan parte hartu dutenen zerrenda, kargua eta zein enpresa edo erakundetakoak diren adieraziz, eta elkarrizketa irekien eta eztabaida-taldeen gidoien ereduak.

Aditu-taldeen kasuan, egindako saioen aktak eta txostenak aurkeztu beharko dira. Kasu horietan, adituei egindako elkarrizketekin batera, bere burua aditu zein arlotan ikusten duen dioen banakako informazioa aurkeztuko da.

2.– Teknika kuantitatiboak erabili badira, datu-basea eta fitxategiak ustiapen-emaitzekin. Exdel edo Access formatuekin bateragarria den formatuan entregatuko da datu-basea, eta fitxategia ustiapen-emaitzekin, berriz, Excel formatuarekin izango da bateragarria.

3.– Azterlanaren emaitzei buruzko txostena. Lau kopia entregatu beharko dira: bi paperean eta beste bi euskarri informatikoa (CD-ROM banatan), eta horietako bakoitzaren testu formatuko bertsioa (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatukoa (PDF).

4.– Egindako jarduerak eta helburuak deskribatzen dituen «abstract» edo laburpen zehatza eta motza, 20 lerro ingurukoa.

5.– Ondorengoak laburki deskribatuko dituen lapurpena: metodologia-alderdi nagusiak, azterlanean egindako eta aurreko atalean zehaztutako analisi ezberdinen ikuspegi integratzailea eta ondorio eta proposamenik garrantzitsuenak.

Agiri horren orrialdeak zenbatuta egongo dira eta azala, aurkibidea eta ekintza gauzatu duen taldearen identifikazioa barne hartu beharko ditu, eta gehienez ere 200 orrialdekoa izango da. Lau kopia entregatuko dira: bi paperean eta beste bi kopia euskarri informatikoan (bakoitza CD-ROM batean), bertsioaren kopia bakoitza testu formatuan (Microsoft Word edo bateragarria) eta Adobe Acrobat formatuan (PDF, gehienez 2 Mb-ko tamainarekin) Internet bidez hedatzeko. Hori dela-eta, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berori garatzen duen gainerako araudian xedatutakoa bete beharko da.

5.3.4.– Proiektuak hedapenerako jardunaldi teknikoak barne hartuz gero, ondorengoak ere aurkeztu beharko dira:

Ekintzaren gauzatze-aldian, «Hedapenerako jardunaldi teknikoen plangintzari buruzko txostena» bidali beharko zaio Hobetuzi, gutxienez ere, jardunaldiak hasi baino bi hilabete lehenago. Txostenean honako hauek jasoko dira:

– Jardunaldi teknikoaren helburu bereziak.

– Metodologiaren eta denboraren plangintza.

– Jarduerak koordinatu eta gauzatzeaz arduratutako pertsonak.

– Aurreikusitako txostengileen kopurua eta profila eta zergatik aukeratu diren.

– Bertaratutakoen kopurua eta profila.

– Zein egunetan egingo den.

– Non egingo den.

– Garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta instalazioak.

– Jardunaldirako aurreikusitako iraupena.

Jardunaldiak amaitutakoan honako hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Ekintzaren memoria, honako hauek barne hartuta: jorratutako gaiak, garatutako ponentziak eta zein tokitan, egunetan eta ordutegitan egin den.

2.– Jardunaldi teknikoaren ondorioak biltzen dituen dokumentuak, jardunaldian zehar izandako ekarpen interesgarriak barne hartuta (lan-taldeetan, mahai-inguruetan, ebaluazio-galdetegietan, etab.).

3.– Hedatzeko edo aurkezteko erabilitako materialaren kopia. Triptikoak, gonbidapenak, prentsako iragarkiak, etab.

4.– Bertaratutakoei emandako materialaren kopia.

5.– Bertaratutakoen identifikazioa, sinaduren kontrola eta ondorengo datuak barne hartuta:

– Izen-abizenak.

– NAN.

– Ordezkatzen duten enpresa edo erakundearen izena.

– Aurreko atalean adierazitako enpresa edo erakundean garatutako kargua edo lanpostua.

– Harremanetarako telefonoa.

– Sinadura.

6.– Hala badagokio, prentsa-dosierra.

Deialdiaren 17.7 artikulua betez, ekintzaren fase bakoitzaren garapena egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein dokumentazio izan eta entregatu beharko du erakunde onuradunak, Fundazioak eskatzen badio (besteak beste, bete eta baliozkotzat jotako galdetegiak, elkarrizketa irekien, eztabaida-taldeen eta aditu-taldeen zintak edo transkripzioak eta landa-lana gainbegiratzearen datuak kalitate-kontrola berraztertzeko).

Produkturen bat Interneten badago eskuragarri, onuradunak Hobetuzi URL helbidea eta horietara, proiektua garatzen den bitartean, sartzeko behar diren gakoak eta jarraibideak eta ziurtapena jakinarazi beharko dizkio.

II. ERANSKINA

BALORAZIO TEKNIKORAKO IRIZPIDEAK ETA HAZTAPENA

Ekintza-mota bakoitzerako 11. artikuluan aipatutako balorazio teknikorako irizpideak garatzen dira, dagokien haztapena adieraziz. Eskatutako ekintzen balorazio teknikoak irizpide-multzo ezberdinak izango ditu aintzat, eta multzo bakoitzari puntuazio bat dagokio. Aldagai ezberdinen puntuazioen guztizko baturaren gehieneko balioa 100 puntukoa izango da.

5. artikuluan araututako ekintza-mota bakoitza baloratzeko, ondoren adierazten diren multzo eta irizpideak izango dira aintzat:

1.– 5.1 artikuluan araututako ekintzak: enplegurako lanbide-heziketa sustatu eta hedatzea.

1) Ekintzaren planteamendu orokorra eta diseinua.

– Proiektuaren planteamendu orokorra eta helburu eta espero diren emaitzekiko koherentzia.

– Proiektua garatzeko metodologia (prozedura eta justifikazioa).

– Aurreikusitako hedapen-esparrua.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 50ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

2) Proiektua garatzen duten erakundeak eta ekipo teknikoa.

– Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

– Jarduera nagusiez arduratuko diren lan-taldeko kideen profilak.

– Erakunde eskatzaileak eta proiektuaren garapenean esku hartzen duenak antzeko ekintzetan eta enpresekiko harreman zuzeneko esperientzia duela eta bere profiletan kalitatea eskainiko duen laguntza-sare profesionala duela egiaztatzea.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 35ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

3) Aurrekontua.

– Aurrekontuaren garatu beharreko jarduerekiko egokitzapena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 15ekoa izango da. Multzo honetan puntuaziorik lortzen ez duten proiektuak baztertuko dira.

2.– 5.2 artikuluan araututako ekintzak: informazio- eta orientazio-zerbitzu integratuak enplegurako lanbide-heziketan esperimentatzea.

1) Ekintzaren planteamendu orokorra eta diseinua.

– Proiektuaren planteamendu orokorra eta helburu eta espero diren emaitzekiko koherentzia.

– Proiektua garatzeko metodologia (prozedura eta justifikazioa).

– Orientazioaren hartzaileak eta jarduketa-eremuak.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 50ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

2) Proiektua garatzen duten erakundeak eta ekipo teknikoa.

– Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

– Jarduera nagusiez arduratuko diren lan-taldeko kideen profilak.

– Erakunde eskatzaileak eta proiektuaren garapenean esku hartzen duenak antzeko proiektuetan esperientzia eta gaitasun teknikoa dutela egiaztatzea.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 35ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

3) Aurrekontua.

– Aurrekontuaren garatu beharreko jarduerekiko egokitzapena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 15ekoa izango da. Multzo honetan puntuaziorik lortzen ez duten proiektuak baztertuko dira.

3.– 5.3 artikuluan araututako ekintzak: berrikuntza-ekintzak prestakuntza-prozesuetan, -produktuetan eta -tresnetan.

1) Ekintzaren planteamendu orokorra eta diseinua.

– Proiektuaren planteamendu orokorra eta helburu eta espero diren emaitzekiko koherentzia.

– Proiektua garatzeko metodologia (prozedura eta justifikazioa).

– Produktuen berrikuntza, erabilera-plana eta eskualdatzeko ahalmena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 50ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

2) Proiektua garatzen duten erakundeak eta ekipo teknikoa.

– Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

– Jarduera nagusiez arduratuko diren lan-taldeko kideen profilak.

– Erakunde eskatzaileak eta proiektuaren garapenean esku hartzen duenak antzeko proiektuetan esperientzia eta gaitasun teknikoa dutela egiaztatzea.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 35ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

3) Aurrekontua.

– Aurrekontuaren garatu beharreko jarduerekiko egokitzapena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 15ekoa izango da. Multzo honetan puntuaziorik lortzen ez duten proiektuak baztertuko dira.

4.– 5.4. artikuluan araututako ekintzak: hausnartu, aztertu eta esperientziak elkartrukatzeko foroak sortzea.

1) Ekintzaren planteamendu orokorra, helburuak eta diseinua.

– Proiektuaren planteamendu orokorra eta helburu eta espero diren emaitzekiko koherentzia.

– Lan-plana eta egin beharreko ekitnzak.

– Proiektua garatzeko metodologia (prozedura eta justifikazioa eta azpiegiturak).

– Proposamenak hedatu eta eskualdatzeko sistema.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 40koa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

2) Proiektua garatzen duten erakundeak, ekipo teknikoa eta foroan esku hartzen duten parte-hartzaileak.

– Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

– Koordinazio teknikoaz arduratutako pertsonen profila eta curriculum vitaea.

– Erakunde eskatzaileak eta proiektuaren garapen teknikoan esku hartzen dutenek antzeko ekintzetan esperientzia dutela egiaztatzea.

Parte hartzen duten erakundeen eta adituen dibertsitateak eta kopurua.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 45ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

3) Aurrekontua.

– Aurrekontuaren garatu beharreko jarduerekiko egokitzapena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 15ekoa izango da. Multzo honetan puntuaziorik lortzen ez duten proiektuak baztertuko dira.

5.– 5.5 artikuluan araututako ekintzak: zeharkako eta sektore anitzeko azterlanak.

1) Ekintzaren planteamendu orokorra eta diseinua.

– Proiektuaren planteamendu orokorra eta helburu eta espero diren emaitzekiko koherentzia.

– Helburua, edukiak eta amaierako emaitzak.

– Proiektua garatzeko metodologia (prozedura eta justifikazioa).

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 50ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

2) Proiektua garatzen duten erakundeak eta ekipo teknikoa.

– Proiektuaren zuzendari teknikoaren profila eta curriculuma.

– Jarduera nagusiez arduratuko diren lan-taldeko kideen profilak.

– Erakunde eskatzaileak eta ekintzaren garapenean esku hartzen dutenek antzeko proiektuetan esperientzia eta gaitasun teknikoa dutela eta ekintzaren xede den gaia ezagutzen dutela egiaztatzea.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 35ekoa izango da. Multzo honetan beste balorazio-irizpide batzuen ondoriozko puntuazioa aplikatu gabe 20 puntura heltzen ez diren proiektuak baztertuko dira.

3) Aurrekontua.

– Aurrekontuaren garatu beharreko jarduerekiko egokitzapena.

Multzo honetan jasotako irizpideen pisua azken balorazioaren arabera, 100eko 15ekoa izango da. Multzo honetan puntuaziorik lortzen ez duten proiektuak baztertuko dira.

III. ERANSKINA / ANEXO III

EKINTZA DESKRIBATZEN DUEN FITXA / FICHA DESCRIPTIVA DE LA ACCIÓN

2011ko deialdiko laguntza-ekintzak / Convocatoria 2011 de acciones de apoyo

Izena:/*Denominación*:
Esp. zk.: / *N.º expte*:
Erakunde titularra: / *Entidad titular*:
Erakunde laguntzaileak: / *Entidades colaboradoras*:
Gaia:/Tematica: Kolektibo hartzailea: / *Colectivo destinatario*: Sektore arloa: / *Ámbito sectorial*: Hedapenerako jardunaldi teknikoa: / *Jornada técnica de difusión*:
Laburpena (gehienez 20 lerro): / *Resumen (máximo 20 líneas)*:
Egungo egoera: (proiektua zein fasetan dagoean: landa-lana, ereduzko esperientzia, hedapenerako jardunaldi teknikoa, ondorioen prestakuntza, etab., fase hori zein hilabetetan hasi eta amaituko den zehaztuz). *Situación actual: (fase en la que se encuentra el proyecto: trabajo de campo, experiencia piloto, jornada técnica de difusión, elaboración de conclusiones, etc. especificando el mes de inicio y de finalización de dicha fase).*